




**Angeles Ganboa  
sunbildarrarekin**

03

11 urte zituela Sunbilla utzi eta Donostiara joan zen neskato Angeles Ganboa. Geroztik han bizi da, baina Sunbillara bisita aunitz egindakoa dela kontatu digu.



**Oihartzun handia  
izan du grebak**

09

Sindikatu nagusiek maiatzaren 21erako deitutako grebak eragin handia izan du gure eskualdean. Batez ere, industrian somatu da ondorioa.

2009ko maiatzaren 28a • XXIX. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



40

## Adur Etxezarreta aresoarra 13 urterekin onenen artean

ESPAINIAKO TXAPELKETAN HIRUGARREN SAILKATU DA INFANTILETAN

# Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind.20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98  
 informacion@lasao.com • www.lasao.com



## JAZZ KONTZERTUA

Lekua: Berako Kultur etxea  
 Eguna: Ortzirala, maiatzaren 29a  
 Ordua: 22:00

**SARRERA** 12 euro  
 (aitzinetik erosita 10 euro;  
 Errekalde Ostatuan salgai)

Grammy Sarietarako bi aldiz izendatua.

Argibide gehiago:  
[www.stanleyjordan.com](http://www.stanleyjordan.com)

Antolatzaileak:



**DATUAK...**

- 11 urterekin sorterrria utzi eta Donostiako etxe batera neskato joan zen Angeles Ganboa (Sunbilla, 1931). Geroztik Gipuzkoako hiriburuan bizi da.
- Ezkondu eta haurrak hazitakoan, oparitzeko gauza zaharren denda bat ireki zuen Donostiako Urbieta kalean. Orain, 30 urte beranduago, likidazioan jarri du.
- Urte aunitz Sunbillatik kanpo, baina halere, herrira bisita aunitz egindakoa da. Haurrak Sunbilla eta Donostia artean hazi zituen. Bere euskara ere ez du galdu.



**Angeles GANBOA** *Donostian bizi den sunbildarra*

ARGAZKIA: AINTZANE PIKABEA

# «11 urterekin etxe on batera neskato etorri nintzen Donostiara»

**ttipi-ttapa**

**Jaiotzez sunbildarra, baina gaztea zizela Donostiara joan zinen...**

11 urterekin etxe on batera neskato etorri nintzen Donostiara. Sunbillako gizon bat Donostiako alaba batekin ezkondua zegoen, etxe onekoa, eta probatzeko ekarri ninduten. Ama ere lasai gelditu zen ezagunak zirelako.

**Nolakoa izan zen jaioterrria utzi eta Donostiara joatea?**

Ez zen hain gogorra izan. Tarteka arratsetan triste xamar egoten nintzen baina jende ona aurkitu nuen.

**Sunbilla herri ttikia, Donostia haundia. Aldaketa haundia izan zen?**

Toki diferentea zen bai. Halere, orduan Donostian auto gutti zegoen eta erraza zen ibiltzeko. Berehala hasi nintzen haurrekin kanpora eta ni ibiltzen nintzen tokia behinik behin lasaia zen. Horrela ezagutu nuen Donostia. Igandetan, Ategorrietara joaten nintzen. Attaren arreba bat han egoten zen, Iruritako lagun batekin etxe bat zaintzen eta haiengana joaten nintzen haurrekin batzuetan eta gabe bertzeetan.

**Zenbat urtez neskato?**

Aunitz. Jendeak pixka bat tendatu zi-

**«Neskato egon nintzenean, euskaldunak izanagatik ez zuten hitzik ere egiten euskaraz etxean. Baina nik nola utziko nuen ba euskara? Ez, gure solasa horixe da, euskara».**

dan gehiago irabazteko eta nik ere al daketa nahi nuen, eta 17 urterekin edo, Añorgara joan nintzen Errezolaren etxera neskato. Zerbitzu gehiago zegoen han. Gero orain dudan gizona agertu zen, nobio egin eta ezkondu egin nintzen. Ezkondu eta umeak izan nituen.

**Eta gero denda ireki zenuen, ezta?**

Bai, berandu ireki nuen. Haurrak hazitakoan, batzuk ezkonduak ziren ordurako. Denda ireki nahi nuen eta nolabaitere moldatu ginen. Berehala hasi nintzen lokal baten bila eta Urbieta kaleko hau aurkitu genuen.

**Dendak ez du izenik. Zergatik?**

Etxean izena paratu behar geniola erran nuen, baina batek bat, bertzeak bertzea, azkenean izenik gabe gelditu zen. Egia erran, berdin zitzaidan, ez nuen uste horrelako beharrik zuenik. Gero-

ra aunitzetan galdetu didate «zein denda hau», «nola du izena?». Eta nik «ba, ez du izenik». Denbora ustekabean pasatu zait. Denda atzo ireki nuela iruditzen zait eta 30 urte pasatu dira.

**Zergatik aukeratu zenituen traste zaharrak dendarako?**

Ttiki-ttikitatik maite izan ditut. Baserrian erdi puskatuak zeuden gauzak ere nik beti badaezpada gorde egiten nituen.

**Eta orain likidazioan dago denda...**

Bai, urteak ihes egin didate. Goiz eta atsialdea sobera nuen lan egiteko eta norbait paratu behar zela hasi ginen. Baina azkenean alaba bat prest agertu eta ni goizetan eta bera arratsaldetan egoten da. 78 urterekin ez nago sobera martxarako.

**Zein harreman dituzu Sunbillarekin?**

Sunbillara aunitz joandakoa naiz, eta ezkondua gehiago. Haurrak Sunbilla eta Donostia artean hazitakoak dira.

**Horrenbertze urte Donostian eta Sunbillako euskarari eusten diozu...**

Neskato egon nintzenean, euskaldunak izanagatik ez zuten hitzik ere egiten euskaraz etxean. Baina nik nola utziko nuen ba euskara? Ez, gure solasa horixe da, euskara.



Elizondoko batzarreak inoizko parte-hartzaileenak izaten ari dira.

ARGAZKIA: ONDIKOL

EKAINAREN 13RAKO MANIFESTAZIOA DEITU DUTE

# Eztabaida haundia sortu du Elizondon eraiki nahi den komisaria berriak

**Kezka haundia eragin du Elizondoko Baztanberri auzoan 893 metro koadroko lursailean eraiki nahi den Foru Poliziaren komisaria berriak. Batez ere, auzotarren artean, eta dagoeneko 750etik goiti sinadura bildu dira proiektuaren kontra. Egitasmoaren kontra manifestaziorako deia ere egin dute ekainaren 13rako. Alde batean auzotarrak, proiektuaren aurka, eta bertze aldean, Nafarroako Gobernua eta Udala. Javier Caballero Nafarroako Gobernuako Barne kontseilariak eta Virginia Aleman Baztango alkateak komisaria eraikitzeko hitzarmena sinatu zuten apirilaren 29an. Udalak dohainik utzi dio Gobernuari lur eremua eta honek gastu guztiak bere gain hartuko ditu. Nafarroa 2012 Planean dago jasoia egitasmoa eta obrak aurten hasi nahi dituzte. Barne Sailak milioi bat euro paratuko dituela aurreikusia dago: aurten 600.000 euro eta heldu den urtean gainerako 400.000 euroak.**

## ttipi-ttapa

Elizondon komisaria eraikitzeko prozesua 2006an hasi zen. Urte hartako abenduan adostu zuen Nafarroako Gobernuak, eta ondotik, 2007ko maiatzean gaur egun Santiago karrikan dagoen egoitza bat zabaldu zen. 2008ko udazkenean instalazio osagarriak ireki ziren karrika berean. Geroztik, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Ultzamako 27 udalerritako 27.000 bizilagunetz arduratzen dira.

Baina orain, Santiago karrikako bi egoitzak elkartu eta lekualdatzeko asmoa dago. Nafarroa 2012 Planaren baitan, UPN eta PSN alderdiek Elizondon komisaria berria eraikitzeko milioi bat euroko aurrekontua adostu zuten, eta akordio hori aitzinera ateratzeko Udalera jo zuten: «Udalari ezaugarri urbanistikoak

*betetzen dituzten lur eremuen berriemateko galdetu zioten», dio Virginia Aleman alkateak. Eta horixe egin du Udalak, Baztanberri Plazako lur eremu bat proposatu. Apirilaren 29an Javier Caballero Barne kontseilariak eta alkateak elkarlan hitzarmena sinatu zuten. Komisaria berriak 30 urteko erabilpena izan dezake, baina alkatearen hitzetan, «noizbait partzela hori erabiltzen ez bada, lurra eta eraikina berriz ere Udalarari bueltatzea biltzen du lagapen hitzarmenak».*

## AUZOTARRAK HASERRE

Etorkizuneko komisaria etxe atarian egon daitekeela jakiteak auzotarrak haserriarazi egin ditu. «Ezaugarri horiek dituen komisaria bat ez da auzotarrek eskatutako zerbait, eta Nafarroako Gobernua-*ren interesei baino ez die erantzuten».* Horixe komisaria berria eraiki nahi den Elizondoko Baztanberri Plazako eta inguruko auzotarren iritzia. Ez dute komisaririk nahi etxe atarian, «ez delako eskatutako zerbitzu publikoa», eta proiektuari oposizioa egiteko eginahalak egiteko prest daude. Sinadura bilketa izan da abiatu duten ekimenetako bat, eta erantzun ona jaso du: astebetetz 759 sinadura bildu zituzten eta maiatzaren 7an udaletxean aurkeztu zituzten. Oraindik ere gehiago biltzeko asmoa dute. Horrez gain, ekainaren 13rako manifestazioa deitu dute. Egin dituzten batzarreak ere inoizko parte-hartzaileenak izan dira, 100 lagunetik goiti biltzen dira. Euren desadostasuna adieraziz, Udalera, Nafarroako Gobernura, Parlamentuko alderdi guztietara, sindikatuetara eta Arartekoarengana ere jo dute. Hori baino lehen, epaitegi-tara jotzea ere pentsatu zuten, baina ekonomikoki garestiegia izanzen zelakoan, bide hori baztertu zuten.

Haserre daude Gobernuarekin eta Udalarekin (NaBai eta UPN), euren borondatearen gaintik komisaria «inposatu» nahi dutela pentsatzen dutelako. Gaia «arras sentibera» dela badaki Alemanek baina erran digunez, «momentu honetan hirigintzako baldintzak betetzen dituen bertzte lur eremurik ez dago Elizondon».

Komisaria eraiki nahi den eremua Baztanberri Plaza eta Braulio Iriarte auzoen artean dago, etxebizitzaren tartean. Horrek auzotarren bizi kalitatea «jaiitsiko lukeela» diote. «Gune berdea eta haur aunitz dabilen tokia» dela ere kritikatu dute, baita orain arte eduki duten lasaitasunarekin zer gertatuko den galdetu ere: «komisaria bat ez da edozein gauza, urteko 365 egunetan, eguneko 24 orduz kontrola erran nahi du». Horrekin batera, Baztanen dagoeneko «polizia aunitz» dagoela ere nabarmendu dute: «Foru Poliziaren komisiariak gain, Guardia Zibilaren bi



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

**Bi aldetara dauden etxebizitzaren erdian dagoen eremu honetan egin nahi da komisaria. Inguruan eraikitzeokoa diren etxebizitzetako obrak direla-eta dago lohituia.**



Virginia ALEMAN

Baztango alkatea



Xabi TORRES

Elizondoko alkatea

*«Hirigintzako baldintzak betetzen dituen bertzte lur eremurik ez dago momentu honetan Elizondon»*

*kuartel daude Elizondon, eta bana Oronoz-Mugairin eta Urdazubin. Azken honetan, Polizia Nazionalarena ere bai».*

Udalak lurra dohainik utzi izanak ere eragin du eztabaida. NaBai eta UPNren aldeko botoekin martxoaren 16ko udal bilkuran ahobatez erabaki zuten hori, 6/1990 Foru Legean oinarrituz. Horren arabera, bertzeak bertze, Udala ahobatez alde agertzen bada eta tokian tokiko intereserako denean egin daiteke doako lagapena. Baztango alkatearen hitzetan, «legearen araberako lagapena egin da, administrazio publikoen arteko kolaborazioaren baitan». «Udal zerbitzu juridikoek egingako aldeko txostenean oinarrituz, lur eremu horretan komisaria egin daiteke».

Auzokoek, ordea, ez dute ulertzen «bartzandar guztiona den lur dotzionala nola utzi duten dohainik helburu horretarako» eta legearen «gehiegizko interpretazioa» egin delakoan daude.

*«Nafarroako Gobernuari eta Udalarari proiektua bertan behera uzteko gestioak egiteko eskatzen diogu»*

«Barrideekin hitz egin gabe, gauzak isilpenean egin izana» ere leporatu diote Udalarari. Baina alkateak zera aipatu digu, «martxoaren 16ko plenoan lagapena adostu zen, eta ondotik ez da alegaziorik aurkeztu. Apirilaren 6an udaletxean auzotarrek eskatutako informazioa eman zitzaion». Egun horretan, auzotarrak azaldu dutenez, «elkarlan akordioari eta proiektuaren zirriborroari buruz ere informazioa eskatu genuen, baina apirilaren 28an jaso genuen, Udalak eta Gobernuak akordioa sinatu zuten egunaren bezperan».

Auzia bizi-bizi dago. Gobernuak aurtien hasi nahi du komisaria eraikitzen, baina auzotarrak geldiarazteko asmoz daude. Xabi Torres Elizondoko alkateak ere, batzarrean bildutako izenean, eskerra argia luzatu die Udalarari eta Gobernuari: «proiektua bertan behera uzteko beharrezkoak diren gestioak egin ditzatela».

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Irtaxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**2009ko harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	36 €
Spainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	30 €



**Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du**



## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Amaiurko Gazteluaren gerizpetik

Gure herriazera suntsitzeko eta menpeko bihurtzeko saiakera amai-gabeei aurre egin die behin eta berriz herri zahar honek. Mendeetan zehar egindako erresistentziaren lorpenek eta nazio eraikuntzan emaniko aurrerapausoek gure herria gurutzbide garrantzitsu baten aurrean kokatu dute, hots, jendartearen gehiengoak nahi eta behar duen aldaketaren aurrean, zapalkuntza eta inposaketa tresna guztiak baliatuz, herri honetatik urrutit dauden interesen mesedetan jarraitu asmo dutenak daude.

Bidegurutzetako urduri jarri ditu zapalkuntzaren bide zidorrak jorrazteko hautua egin asmo dabilzanak. Horrela, salbuespeneko neurrien bitartez, beraien helburu politikoak erdiesteko intentzior kolpatzen dute herria; erbestean, kartzelan edota kartzela bidean dira Euskal Herriaren burujabetza eta izaeraren defendatzaile diren ideiak. Ezkabatik Puerto de Santa Maria-ra salto egin badugu ere, bizi baldintza kaxkarretan eta heriotza-zigor berdinez mehatxatuak dira gatibu dituzten herrikideak. Saminez gogora datozkigu bide horietan gelditutakoak, Kotto laguna erraterako.

Bortxara derrigortu nahi gaituzte halabeharrez; euskaldunak esku-biderik gabeko jende multzo batean bihurtuz. Gaztelako jauntxoaren oinordekoek, beren helburuak lortzeko xedez, errepre-

sioaren azeragailua ondoraino sakatu eta zigor eredarriak jarriaz, bidenabar, beldurra hedatuz ari dira etenik gabe; herri zahar honen sugarra bizirik mantentzeko ezinbertzekoak diren bitartekoak hankazpian, debekaturik eta suntsitze bidean direlarik: Euskarearen ofizialtasunaren aurkako legediak, hezkuntza sistema propioa izateko ezintasuna, drogenerabilera politiko ekonomikoa, langileon eskubideen aurkako legediak...

Oraingoan, jai herrikoiak jarri dituzte jo puntuan. Lesakako txoznetan kamiseta batzuen salmentarekin zerikusia omen duten 6 lesakar inpartatu ditu Guardia Zibila, baita Audentzia Nazionalerako bidean jarri ere. Herriak sortutako eremuak kriminalizatzetik gain, herriaren aldeko edozein konpromiso hartzea zigorrarekin lotu nahi dute. Denboran gibelera egiten badugu, frankismoaren esentziak bizirik dirauela konturatu gara, lehengo lepotik burua beraz.

Horrelako neurrietaz baliatu dira, Iruñeko nahiz Gasteizko legebiltzarretan espainiar proiektuaren defendatzaileak jaun eta jabe izateko. Legedi berdina erabili zuten eskualeko udal ilegitimokak eratu (Sunbilla, Lesaka eta Baztan) eta herriak aukeratutako ordezkariak kanpoan uzteko. Lapurren abizenak, NaBai bezala sinatuak daude oraindik-orain.

Jakitun gara, horrelako neurri antidemokrati-koak urteen poderioz botereak pozoindutako jendarte eredu sumiso, akritiko, desideologizatu eta manipulatuaz baliatuz in-

posatzen dituztela.

Albako Dukearen oinordekoek eredu zaharberritu martxan jartzea ezinbertzekoa dute. Horretarako, Beamontargarraikide leialen beharrean dira. Ezker Abertzale «berria» deitua gustuko dutenek, Rubalcabaren txaloak jasotzen ari direnak, hain xuxen, salbuespeneko araudietaz baliatzen ari dira, herri borondatea kontuan hartu gabe inposatzen ari diren proiektu txikitzaile aunitz babesten dituzte eta ezkertiar eta abertzaleon aurkako sorgin ehiza, laguntza bezala aplikatzen zaigulakoan daude. Gure herria galbidera eramaten dituzten bide horietatik pasa direnen esperientziak ikasgai nahikoa beharko lukete berriaz harri berdinean ez erortzeko.

Espainiara lotzen gaituzten kateak sendotzeko lanean dabilta bertzeak. Beraien historia hurbilak utzitako itzalen asotsa ezaguna dugu; hainbat euskaldunen heriotza tarteko. Lesakan bizitutakoak ez digu esperantzarako argirik uzten; errepresioaren atzaparkadak larrutik ordaintzen dituzten bizilagunak babestu ordez, eztabaida desitxuratu eta herri mugimendua kriminalizatzeari ekin diote. Han eta hemengo jeltzaleen botere nahiz diru gosea asegaitzak direla erakusten ari digute. Horrelako jokabideak dituztela jakitun ote dira, ordea, NaBai bozkatzeko dute-nak?

Finean, estatuen estrategiaren jomugan Ezker Abertzaleko kidegoa egonik ere, Euskal Herriaren etorkizuna baldintzatzea da beraien nahia; herri bezala egi-

ten gaituzten zurtoinak desegitea dute helburu: «Aitarenean teilatua garrantzitsua izanik ere, ez dezagun ahanzi ezinbertzekoa dela amaren sua: hizkuntza, usadioak, gure kultura, gure izaeraren adierazleak. Horiek gabe nekez dugu Euskal Herria eraikiko. Agian bertze zerbait eraikiko litzateke, baina erdal herria izanen litzateke», hain xuxen ere.

Historian izaniko akatsetatik ikasiz, gure herriaren biziraupena lortuko duen eszenatoki bat irabazteko xedez jarraitu beharrean gaude abertzaleok; justizian oinarritutako demokrazia, alegia. Gure herriak pairatzen dituen erasoak erantzun eta eraikuntza lanean aritzeko abertzaleok batu behar dugu. Arduraz jokatzeko, alderdikeri jokoak baztertu eta gure herriaren interesen mesedetan aritzeko baliabide eraginkorrak martxan jartzea da.

Senecak zioen bezala, «no es el hecho de que las cosas nos parezcan inaccesibles la razón de que no nos atrevamos, es el hecho de no atrevernos, la causa de que nos parezcan inaccesibles». Irabaz dezagun Euskal Herria!

**Xotero Etxandi, Mikel Altzuart, Julen Mitxelorena, Begoña Igoa, J.E Txoperena, Iban Maia, Josu Goia, Iñaki Gogortza, Josu Irtzoki, Aitor Telletxea, Irati Lujua, Faustino Marizkurrena, Enkarna Andueza. Hautetsiak eta hautetsi ohiak.**

## Yamiled Giraldozen heriotza dela-eta

Iturengo eskola publikoak gertatutako Yamiled Giraldozen heriotza dela-eta, ondorengoak azaldu nahi ditu:

1-Yamileden familia eta lagunei gure samina eta elkartasuna une latz hauetan.

2- Dagokien instituzioei justizia eta beharrezko pauso guztiak eman ditzatela hilketa krudel hau bertan behera geldituz.

3-Zenbait komunikabidek gertaera gogor honi buruz egin duten traetaresa desegokia eta errespetu gabekoa izan dela.

**Itureko eskolako irakaslegoa**

## Ametsari tira eta tira, Gaztetxea herrira

Plisti-plasta, halaxe janzitzaigun Gazte Eguna Lesakan bai, ur artean. Hala ere, eguraldia ez zen oztopo izan, ez. Izan ere, egun honetan, elkartu ginen gazte kuadrila eder bat.

Lesakarrak eta egun batez lesakarrak bihurtu ziren gazteak ere. Hegoalde zein Iparraldekoak, denak bat eginez. Parekidetasunean, naturaltasunez, euskal giro jatorrean; Euskal Herria bat izan zen, berriz ere erakutsiz herri bakarra gurela eta gure herrian mugarik existitzen ez dela.

Goiz goizetik hitzaldia izan

genuen, bertsoak... bazkarira 90 lagun inguru bildu ginelarik.

Aipatu bezala, eguraldi kaxkarra egin arren, hantxe ibili ginen. Baina oraingo honetan ere kale gorrian. Bertze batzuetan aipatu bezala, bertze talde eta eragileek beraien xokoa dute gauzak antolatzeko, baina gazteok ez. Beraz gure galdera da, gazteok noizko? Gazteok gaztetxea behar dugu.

Horren alde aritu ginen larunbatean, gogotsu, indartsu, langile eta elkarharremanetan. Nahiz eta handik edo hemendik arazotxoren bat sortu, honi buelta eman eta aurrera jarraituz.

Dena den, egun hau ez zen posible izan laguntzen ibili ziren lagun guztiengatik ez balitz. Hori dela eta, bertatik gure eskerrik beroena luzatu nahi diegu, Arantza eta Malekako gazte asanbladei, eskualdeko bertsolariei, kantu zaharretan ibili zirenei, Nafarroa bizirik ekimenean dabiltzatenek, Arranoko sukaldari eta elkarteari, Lesakako ostalduetuei, Udalak kudeatzen duen herritarren dirulaguntzari, inguruko musikarierik txaranga osatzeagatik, Baztango edari partitzaile tukutuku horiei (beti sasoiatsu!)... barkatu norbait ahaztu bazaigu, baina orokorrean lagundu zuten guztiak eskerrak.

Zuek, lagundu zenutenak zein parte hartu zenuenak egin baitzenuten egun hau posible. Egundatez Lesaka gurea izan baitzen, egunen batean Euskal Herria izan den bezala. Beraz, hala jarraitzera animatzen zaituztegu.

Animo! Zuek bai! Mila esker hurbildu zineten guztiak! Eta besarkada bat bertan ez zaudetenei!

## • 11 GALDERA LABUR •

**Matematikan Nafarroako Olinpiadetan txapeladun, 162 ikasleren artean irabazle aterata, ez zara makala izanen, ez?**

Bueno, badu meritua bai. Kontent gelditu naiz.

**Zein da zure ikasgaririk gustukoenak?**

Matematika.

**Nondik heldu zaizu matematikarako afizio hori?**

Tiki tikitatik gustatu izan zait.

**Zer du ba bertze irakasgaiak ez duena?**

Ongi moldatzen zaren gauza bati, beti gustu gehiago hartzen zaio. Bertzeetan baino hobeki moldatzen naiz.

**Formula aunitz ikasi izanen dituzu, bat aukeratu zenuke?**

Denak.

**Kalkulagailurik gabe, eragiketaren bat egiteko eskatuz gero, egiten zenuke?**

Denbora pixka bat utziz gero...

**Zenbat da  $9 \times 13 + 3/2/4 + 3$ ?**

18.

**Tenerifen estatuko onenekin ari beharko duzu, baduzu itxaropenik?**

Nafarroakoa irabaztea baino zailagoa da. Gertatzen ahal da baina zaila da.

**Nolatan joan zineten Nafarroakora?**

Irakasleak olinpiadak bazirela erran zigun eta lagun batek eta biok izena eman genuen, zer zen ikusteko. Joan eta ongi aterazen.

**Ikastea gain, baduzu bertze afiziorik?**

Jostatzea, kirola egitea...

**Akautzeko, nola definituko zenuke zure herria?**

Urrotz? Herri polita dela.



**Andoni ZOZAIA**  
*Urrozko gaztea*

Gurea gurera ekarri arte bertan jarraituko dugulako lanean!

**Lesakako Gazte Asanblada**

## Eskerrak emanez

Goizuetako Umore Ona futbito taldeak hainbat eskertza luzatu nahi dizkie herriko eragile eta zaleei. Lehendabiziko eta behin, eskerrak Umore Ona Elkarteari emandako laguntza ekonomikoagatik, bestela ez baike-

nuen parte hartzerik izaten. GIpuzkoako hirugarren mailako areto futbol txapelketan. Ondoren, ikusle guztiak, larunbatero herriko frontoia leporaino bete duzelako. Umeek, gazteek, helduek... ikaragarria da taldea animatzeko eduki duen grina. Ez dugu inon ikusi horrelako girorik, ezta antzekorik ere. Etoritzen ziren kontrarioak ere harrituta gelditzen ziren. Baten bati entzun zaio komentario hau: «Goizuetan jokatzea zaila da, herri guztiaren kontra aritu behar baita».

Eta azkenik, eskerrik beroenak kanpoko gure partidetara mugitu den

jende guztiari; nahiz kanpoan jokatu, gehiago izan dira askotan gure jarraitzaileak bertakoak baino. Zarautz, Ordizia edo Aretxabaletan, esate baterako.

Besterik gabe, talde guztiaren izenean, mila esker eta heldu den urtean ere hain arratsalde politak pasatuko ditugulakoan agurtzen gara. Herriko azken partidaren artean genuen pankartak zioen bezala: *garaipenik haundiena, zuek eman duzuen*.

**Umore Ona futbito taldea**

## KRISIA

# 500 lagunek bat egin dute Arantza, Bera eta Etxalarko alkateek deituriko manifestazioarekin

Krisiaren aitzinean sistema aldatzeko eskatu dute

## ttipi-ttapa

*Ez gaitzen engaina, sistema bera da balio ez duena* izenburupean Arantza, Bera eta Etxalarko alkateek deitutako manifestazioak 500 bat lagun bildu zituen maiatzaren 9an Beran. Deitzaileekin batera, ELA, LAB eta EHNE sindikatuak, Etxalar, Arantza, Sunbilla eta Bertizaranako udalek, Bera, Lesaka, Malerreka, Baztan eta Arantzako Gazte Asanbladek eta Baztandarren Biltzarra elkarteak bat egin zuten deialdiarekin. Zalain Transformados lantegitik abiatu eta Berako Herriko Etxeko plazarako bidea egin zuten, Alkaiagako industrialdetik pasatuta.

Eskualdean ematen ari diren erregulazioen kontra, «kaleratzerik ez», «dirurik ez da falta, lapurrak soberan» aditu ziren, baita bertze hainbat ere. Beratik Iruñera Burniaren martxa akautu berria zuten Fun-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Zalain-Zokotik abiatu eta Berako Herriko Etxeko Plazara egin zuten ibilaldia.

verako hainbat langilek ere parte hartu zuten manifestazioan, euren buzo berdeak jauntzita.

Herriko Etxeko Plazara ailegatuta, manifestariak kezka eta harriduraz ikusi zituzten Herriko Etxearen arkupean margotutako pintadak. Falangisten izenean, egungo eta garai bateko alkate eta zinegotzien kontrako heriotz mehatxuak irakur zitezkeen.

## NEKAZARIEN EGOERA

Hizlarien txandan, EHNEko Mikel Altzuartek hartu zuen lehenik hitza eta sistemak Albako Dukesa bezalako lurjabe handiak laguntzen dituela salatu zuen, «%5ak dirulaguntzen erdia jasotzen duela» salatu. Alde horretatik, «sistema lehen sektorea hiltzen ari dela» azpimarratu nahi izan zuen. Nekazaritza eta abeltzaintza azken 30 urteotan

krisian daudela ere aipatu zuen: «orain dela 25 urteko prezioak ordaintzen dizkigute».

## FUNVERAKO LANGILEEN BATZORDEAREN HITZAK

Funverako langileek beraien lantegian egindako Lan Erregulazio Espedienteari buruzko datuak eman zituzten. ELAko Felix Espelosinnek eta LABeko Dabit Iturriak beraien mobilizazio adibidea kon-

tuan hartuz, langileak elkartzeko beharra azpimarratu zuten. Izan ere, hiru eguneko Burniaren martxaren ondotik, maiatzaren 8an aurkeztu zuten beraien gorako errekurtoa Nafarroako Gobernu Lan Departamentuan. «Urria arte lan aunitzekin egon gara eta hilabete batez EREa aurkeztu dute. Gure ustez, dirua aurreztu bakarrik egin nahi dute, etorkizuneko kaleratzeei aitzin egiteko».

## UDALAK ERE KRISIAN

Patxiku Irisarri Etxalarko alkateak «kapitalismoa langileen kontura bizi dela» aipatu zuen eta manifestazioaren leloak zioen bezala, «sistemak bera dela balio ez duena». Irisarriren ustez, «krisiak ez dio EREan dauden edo kanporatuak izan diren langilei bakarrik eragiten, gizarte osoari baizik».

Ekitaldia akautzeko, Josu Goiak *Internazionala* kantatu zuen.

**LEGARRA**

Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:

**DESKONTUAK**

- -60% eta -50%
- -40 % oparietan
- -30 %
- -20 % oparietan

Tel/Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**ZJ**

**Zalain**  
jatekxoa - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain aurzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanoa desde  
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054



## GIZARTEA

# Jarraipen zabala izan du grebak eskualdean

Industria arloan batez ere ia erabateko eragina izan du

### ttipi-ttapa

Maiatzaren 21erako deitutako grebak jarraipen zabala izan zuen eskualdean. Industria arloan batez ere, kasik erabatekoa izan zen geldialdia eta lantegi haundienak, **Lesaka** eta **Legasako** Arcelor, Condesa, Funvera, Savera eta bertze hainbat guziz itxiak egon ziren egun osoan. Zalain eta Alkaiaga industrialdeetan langileen %90a baino gehiagok greba egin zuela aipatu zuten ELA eta LABeko iturriek.

**Malerreka** aldean ere, Aparan industrialdeko lantegiak itxi zituzten. Eguneko arazo bararra **Doneztebe**ngertatu zen. Informazio pikeetek herrigunera sartu nahi zuten, komertzioetan informazioa banatzeko, baina Guardia Zibila eragotzi eta zuzenean industrialdera sartzerara behartu zituzten.

**Leitzaldean** grebaren segida erabatekoa izan zen. **Leitzako** lantegirik haundiena, Sarrion, itxita egon zen, eta komertzio eta ikastetxe guzirik ere bai, **Goizueta** eta **Arre**son bezala.

### KOMERTZIO ETA IKASTETXEAK

Komertzioen arloan, **Bera** eta **Lesaka**ko dendak gehienak itxi zituzten, Lesakan %90 inguru eta Beran %70. **Arantzan** denda eta ostatu guzirik itxi zituzten. **Sunbillan** ere erabat itxi zutela aipatu zuen ELAko Joxe Mari Arribillagak, baina **Doneztebe** eta **Elizondo** aldeko komertzioetan greba ez zen erabatekoa izan. Arribillagaren arabera, greba aitzinetik, **Lesaka**, **Bera**, **Doneztebe** eta **Baztango** merkatarien elkarteekin bildu ziren grebaren berri emateko eta haiek euren problematikaren berri ematen zieten sindikatuak. Hala, zenbait dendek 10:00ak arte ireki eta gero itxi zituzten. Bertze batzuk egun osoan zabalik egon ziren.

Ikastetxeetan ere segida zabala izan zuen grebak. Ikastola zein eskola publikoetan guttieneko zerbitzuak bete zituzten. Toki-Ona institutuan dozena bat langilek greba egin zuten. **Leitzaldeko** ikastetxe-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

**Arratsaldean Lesakan egindako manifestazioan 500 bat lagunek hartu zuten parte. Behekoan, berriz, Savera lantegiaren aitzinean langileak.**

etan ere ez zen klase-rik izan.

Herriko Etxeen kasuan, **Bera** eta **Lesaka**koa itxiak egon ziren, baina guttieneko zerbitzu gisara, langile bana eduki zuten, badaezpada, larrialdiren bat gertatuz gero. **Leitzaldean** ere berdin.

Autobus enpresek ere guttieneko zerbitzuak bete zituzten. **Bera**, **Leitza** eta **Lesaka**ko kiroldetegiak ere itxi zituzten.

### MOBILIZAZIOAK

Greba egun honetan hainbat langilek parte hartu zuten mobilizazioetan Goizean goizeatik Zalain industrialdean

hainbat bildu ziren, lantegietan informazioa zabaltzeko. Goizean 5:00etarako Guardia Zibila ere Condesa lantegiaren inguruan zebilen. Gero, 8:30k aldera, foruzainek ere bete zituzten zainketa lanak. 9:00etan kotxe karabana handia abiatu zen Zalain industrialdetik, eta Alkaiagako industrialdetik eta **Berako** herri-gunetik pasatuta, **Lesaka**ko bidea hartu zuen. Han ere, erabat itxiak zeuden Otsango industrialdea eta Arcelor lantegitik pasatu ondotik, herrigunera joan zen. Hortik, Iruñerako bidea hartu zuten, eguerdian egin zen manifestazio-

an parte hartzera. Arratsaldean 19:00etan Baztan-Bidasoako manifestazioa egin zen **Lesakan**, gizarte eragileek deitua. 500 bat lagun bildu ziren.

**Leitzaldean** ere, Sarrionko langileak lantegian eta gero herrian zehar ibili ziren, informazioa banatzen. Langileek ez zuten aparteko gorabeherarik izan, herriko komertzio guzirik itxiak baitzeuden goiz goizetik. **Goizuetan** kontzentrazioa egin zen eguerdian.

Arratsaldean, **Leitzan** manifestazioa egin zen *eredu ekonomiko eta sozial justoarean alde*.

**ttipi txartelarekin beti irabazten**  
deitu 948 635 458  
eskatu zurea

**40€rekin**  
Harpidetza, 40 dendetan deskontuak, hamabostero zozketak eta gainera, errenta aitormenean %25 itzultzen dizute

## ESKUALDEA

# Pintada faxistak ugaritu dira eskualdean azken sei hilabeteetan

Berriki Baztanen azaldu dira, Artesiagan, Iruritako eliz atarian eta Arraiozen

## ttipi-ttapa

Ez da pintada faxistak agertu diren lehenbiziko aldia, baina ugartzen ari dira. Joan den urteko azaroaz geroztik **Ttipi-Ttapa** hartzen duen eskualdean zabaltzen ari dira falangisten izenean egindako pintadak.

Iazko azaroan **Donezteben** Islamari buruzko erakusketa bat hartu zuen egoitzan agertu ziren lehenik. Bidelagun Elkartearen ekimenez, azaroaren 3an Islamari buruzko erakusketa zabaldu zen baina ateak itxi aitzinetik pintadak egin zituzten azaroaren 10eko goizean. Pintadak garbitu eta ezabatu arren, gehiago egin zituzten azaroaren 11tik 12ra. Aldi horretan, gainera, erakusketa zegoen ateari silikona paratu zioten.

**Amaiurren** Nafarroako konkistaren 500. urteurrenoko kariatara egin zen ekitaldian, orogarria ere pintada faxistekin agertu zen. Ekitaldia otsailaren 1ean egin zen eta goiz horretan *Naparra España da, Gora España, Viva Cristo Rey eta Gabatxos maquetos* agertu ziren idatziak.

**Arantza** eta **Igantzi** arantzako hiribildunean ere azaldu ziren.

**Lesakan** elizarako bidean heriotz mehatxuak agertu ziren gero eta maiatzaren 9ko goizaldean **Bera** eta Lesakan Herriko Etxeetan gehiago. Hala nola, Berako alkatea eta zinegotzi ohi batzuk, presoak zein bertze herritar batzuk mehatxatu zituzten, eta *Euskarra bai komunismoa ez edo Orain gero terrorismoa asi bihar daere* idatzi zuten.

Berriki **Baztanen** agertu dira, Frankismoan bortxazko lanak egin zituzten preso omenez, maiatzaren 16an **Artesiagan** paratutako eskulturaren, erraterako. Omenaldia egin eta biharramunean azaldu ziren. Falange Baztanen izenean, *Viva Cristo Rey, Irebazi giñun ta beti irebeziko* eta gisako idatziak agertu ziren, baita zenbait baztandarren kontrako mehatxuak ere. **Iruritako** eliz atarian ere egin zituzten, Gerra Zibilean Francoren alde hil ziren baztandarrak gorai-patuz. **Arraiozen** Xotero Etxandiren kontrako pintadak azaldu ziren.

Azkenak **Iturenen** egindakoak dira, Trinitate Egunerako gutti galditzen den honetan, ermitan eta enbaltsetan.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Goiko argazkia Donezteben egindakoa da; hurrengoa Berako Herriko Etxeko arkupeetan; eta bertzeak Lesakan Herriko Etxean eta Artesiagan.

**The Pink House**  
Kanpaldiak ingelesez Ituren  
6-13 urte bitarteko heurrak Tel.: 666 727889  
www.thepinkhouse.es pinkhouse@itrra.es

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

**BERA**

## UEMAn sartzeko pausoak emanen ditu Udalak

EAE-ANV eta Aralarko zinegotziek horren alde egin dute

**tipi-ttapa**

Euskara Batzordeak egindako proposamena kontuan hartuz, Udalak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko pausuak emanen ditu. Halaxe erabaki zuen udalbatzarrak apirilaren 23an, Josu Iratzoki alkatearen eta bere taldeko bertze hiru zinegotzien eta Aralarko bi zinegotzien aldeko botoekin. EA eta PNVko zinegotziak abstenitu egin ziren.

EAko Helena Santestebanek aipatu zuenez, «*euskara arloan dagoen dirua optimizatu egin behar da, lehentasunak ikusi, ea Mankomunitateak jarduera horiek egiten dituen edo osagarria den ikusi*». Ideia ongi iruditu zitzaion EAri, baina «*mankomunitatetik eta euskararen aurrekontua igo gabe*» egin beharko litzatekeela aipatu zuen, «*bertze arloetan murrizten ari da eta*». Horregatik, Euskara Mankomunitatea eta UEMA nola osatu behar diren ikusi eta «*agian, datorren urterako uztea*» eskatu zuen.

Aralarko Jon Abrilaren ustez, UEMAn sartzeko

«*Euskara Mankomunitatearen hutsuneak betetzeko da, Udalaren funtzionamenduan sartuko dira eta bata eta bertzea indartuko dira*». Abrilaren ustez, inbertsio afera da eta «*euskararen ez da inoiz ere inbertitu, egin dena udal langileen borondatearengatik izan da*».

EAE-ANVko Ramon Elgorriaga zinegotziak ere Mankomunitateak bere alorra eta UEMAK berea dituela azaldu zuen eta Iratzoki alkatearen ustez, «*UEMAn sartzeko euskararekiko motibazio bat da*». Gainera, UEMAn plana zein den badakitela eta heldu den urterako uztea ez zaio egoki iruditzen, «*dokumentazio bera izanen baitute orain edo gero*».

PNVko Santiago Alzugurenentzat «*diru arazo*» da dena, «*denetan gastua mozten ari da eta honetan ez*». Bera ez Euskara Mankomunitatean ezta Euskara Batzordean ez dagoela onartu ondok, datorren urterako gastua begiratu beharko dela adierazi zuen, «*sobera kargatu gabe eta UEMAK eta Mankomunitateak zer egiten duten ikusiz*».



ARGAZKIA: TOKI ONA ETA ARTXIBOKOA

**Toki-Ona Bortziriak eta Gure Txokoa mailaz igoko dira**  
Toki Ona-Bortziriak mutilen saskibaloitako taldeak Nafarroko Erregionaleko lehenbiziko mailara igotzea lortu du. Hiru urtez lehiaketetan parte hartu gabe egon ondok, denboraldi honetan berriz hasi ziren, erregionaleko bigarren mailan. Baina maila bikaina eman eta partida gehienak irabazi zituzten, liga bukatzeko partidak falta zirenean, igoera ziurtatuz. Talde honetan 14 jokalarik dabil eta horietako gehienak Bortziritakoak dira —hiru irungoak—. Duela 10 urte Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak sortu zuen taldea, Toki Ona-Bortziriak Kirol-Kluba, hain zuzen. Maila diferentetan saskibaloitako bertze bortsu talde ere ari dira, 63 jokalarik guztira. Gainera, aurreinfantilen mailan lehenbizikoak izan dira sailkapenean. Bertzalde, denboraldia Gipuzkoako Erregionaleko bigarren mailan egin duen Gure Txokoa futbol taldeak ere lan bikaina egin du eta horrek bere saria ekarri du: hurrengo denboraldian lehenbiziko mailan ariko da.

**Berako Oihua aldizkaria**

Sanesteban bestetako programarekin batera banatuko den Berako Oihua aldizkarian artikulak idazteko gonbidapena luzatu du Udalak.

Lanaren gaia eta luzera aukeran utziko da eta testuak irudi edo argazkik hornituak joaten ahalko dira.

Aurkezteko epea ekainaren 12an bukatuko da eta bi modu izanen dira: posta elektronikoz [kultura@berakoudala.net](mailto:kultura@berakoudala.net) eta [kultura.bera@gmail.com](mailto:kultura.bera@gmail.com) helrira idatziz edo, zuzenean Kultur Etxera joanez.

**Obra berriak**

Espainiako Gobernuaren laguntzarekin egi-

tekoak diren zenbait obra esleitu ditu Udalak. Kiroldegiko lanak Dozagarat eta Labiaga Eraikuntzak enpresek egingen dute, aldi baterako enpresa-elkarteak, alegia. Lan hauek 128.446,58 euroko aurrekontua dute. Matzada Parkea egiteaz, berriaz, Sasoi enpresa arduratuko da. 159.853,89 euroko gastua izanen du.

**ERREKALDE**  
PLAZA KONKURTATUAK  
PANTAK  
KURTSEK  
TFONA: 948 630 259 #224

**BERA** Zere inguruak klase guzietako irakleak (zomorra, zinnarre, arnasmara, kukuxu...) eta arrotzi nagusiaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduz.  
**GOIKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 567 • Zuzen: 40 A • BERA

**XIFRELLI**  
Ataria 1 • BERA  
Phone 948 631 400

## LESAKA

## Ekainerako hainbat ekitaldi prestatu ditu San Fermin erretiratuen elkarteak

Keinu Leihoak zikloak segida izanen du datozen larunbatetan

### Aitor AROTZENA

San Fermin erretiratuen elkarteak ekainera begira hainbat ekitaldi antolatatu ditu. Ekainaren 9, 10 eta 11n, karta jokoak izanen dituzte eta mus, seien eta despiste txapelketak jokatuko dituzte, hurrenez hurren. Ekainaren 12rako toka, igela eta bolo txapelketak prestatu dituzte eta ondotik, hameketakoa izanen dute.

Ekainaren 13an, Urkiolako erromeriara joateko asmoa dute 75 bat lagunek. Izena emateko epea zabaldu eta berehala bete zen autobusa. Goizean 7:30ean abiatu eta Arrasaten barna ailegatuko dira Urkiolara, bertako ferrian parte hartu, eskulangileen lanak ikusi eta erosi eta erromeriako giroan murgilduko dira. Erandion bazkaldu ondotik, Barakaldora joanen dira, Ikea denda bisitatzeraz.

Ekainaren 24an, azkenik, San Juan Xarre-  
ra ohiko ateraldia eginen dute San Fermin elkarteok. Oinez joan nahi dutenek 9:30ean

izanen dute hitzordua elkartearen eta autobusean joateko 11:00etan. San Juan Xarren meza aditu ondotik, bazkaria Arantzako Burlada jattetxean izanen dute.

### Keinu Leihoak

Maiatzaren 23an abiatu zen aurtengo Keinu Leihoak antzerki zikloa, Mairu antzerki tailerraren *Errege, soldadoa eta bufoia* antzezlarekin. Larunbatean, maiatzak 30, 20:30ean Azeri taldearen *Txanobarragorri* antzezlana ikusteko aukera izanen da komentuan.

Ekainaren 5ean, ortzirala, 22:00etan, azkenik, Kili Kolo Antzerki taldeak *Patetik Kibareta* eskainiko du Arrano elkartearen.

### 1955-56-57ko kintoen bazkaria

Ekainaren 13an egiten dute 1955, 56 eta 57an jaiotako herritarrek kinto bazkaria Kasinoan. 14:30ean izanen dute hitzordua. Izen ematea ekainaren 10a baino lehen egin behar da Koxkila eta Etxeberria ostatuetan.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

### Politikaren judizializazioaren kontrako bilkura


Lesakako Onin, EA eta Ezker Abertzalearen artean adostutako adierazpenarekin bat eginez *Politikaren judizializaziorik ez, konponbidea orain!* lelopean 150 bat lagun bildu ziren Plaza Zaharrea maiatzaren 15ean egindako kontzentrazio isilean. Sanferminetako txoznen inguruan burutzen ari den ikerketa bat dela eta, Audentzia Nazionalaren irekita dauden diligenzien harira, Guardia Zibilak sei lesakar inputatu ditu, «*delitua eta jasan ditzaketen ondorioak oraindik orain argitu ez direlarik*». Aipatzekoa da sei lesakarek joan den ortzegunean deklaratu behar izan zutela Madrilan, Audentzia Nazionalan eta egun berean bueltatu ziren etxera.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Txoko-Txiki sariak banatu ditu Tantirumairu ikastolak

Tantirumairu ikastolak XXXI. Txoko-Txiki ipuin lehiaketako sariak banatu zituen maiatzaren 15ean. Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara bitarteko ikasleei zuzendutako ipuin lehiaketan, Uxue Urroz, Uxue Mesa, Olaia Telletxea, Ganix Arruti, Haizea Etxeberria eta Maite Odriozola suertatu ziren irabazle. Ipuinen ilustrazio lehiaketan, berriz, Garazi Migtorena, Nerea Ordoki, Irantzu Goienetxe, Andrea Lasaga, Ane Otxoteko eta Bixen Telletxea izan ziren saridunak, mailaz maila.



## ETXALAR

# Ekainaren 7an eginen da Gasna Feria Eguna

Nobedade gisa, moto eta bizikleta zaharren erakusketa prestatu du Altxata Kultur Elkarteak

### Joseba eta Nerea

Urtero bezala, ekaineko lehenbiziko astehondarra berezia izanen da Etxalarren. Altxata Kultur Elkarteak antolatutako XVII. Gasna Feria Eguna eginen da ekainaren 7an. Goizean goizetik, ekitaldi andana izanen da plaza bazterrean.

Aurtengo nobedade nagusia moto eta bizikleta zaharren erakusketa izanen da. Horrekin batera, Andre Mari Elkarteko emakumeek eskulan erakusketa paratuko dute Kultur Etxean eta haurrentzako aisialdi-talerrak izanen dira plazan goiz osoan.

Eguerdian, gasnalehiaketa eginen da. Bazkaldu aitzinetik sarrituen izenak emanen dituzte eta ondotik, herriko trikitilariak saio berezia eskainiko dute. Ohiturari segituz,

«*abesti desberdin eta animatuak*» eskainiko dituztela aitzineratu digu Nagore Ansalas irakasleak. 14:00ak aldera, herri-bazkaria eginen da frontoian.

Beti bezala, artisau eta eskulangileen postuak paratuko dituzte goizez frontoian eta plazan. Euskal Herri osotik etortako artisauen lanak ikusi eta erosteko aukera izanen da.

Arratsaldean, Andre Mari Dantza Taldeko dantzari tikienekeuren saioa eskainiko dute, 18:00etan plazan.

### Etxalar UEMAn

Apirilaren 3an egin zuten Udal Batzar Orokorrean, udalbatzak aho batez erabaki zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeari. Mankomunitate honetan sartzeko betebeharreko baldintza nagusia herritarren %70 euskalduna izatea da. Etxalar baldintza hori betetzen duen herria denez, «*egokia ikusi dugu par-*



ARGAZKIAK: JABIER IRIARTE

Herritar nahiz kanpotik etorritako jende aunitz biltzen da Gasna Feria Egunean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

### Eusko Ikaskuntza eta Udalaren arteko hitzarmena

Maiatzaren 20an Udalak kultura eta zientzia lankidetzara hitzarmena sinatu zuen Eusko Ikaskuntzarekin, hemendik aitzinera kultura ekintzak elkarrekin jorrazteko. 99 hitzarmen sinatu ditu dagoeneko Eusko Ikaskuntzak Udalerri kultura eta zientzia jarduerak garatzeko, horietako 19 Nafarroan. Lankidetzara hitzarmen hauen baitan artxibo eta liburutegiak eguneratzen dituzte, ondarea errolatzen dute eta ikerketa bekak ematen dituzte.

taide izatea», adierazi dihardu Nerea Mitxeltoarena Udaleko UEMAko ordezkariak. Urte aunitz darar matza Udalak euskara bere eguneroko jardunekoz hitzuntza izateko

lan egiten. Orain, azken urrats bezala, bere jardunen hizkuntza euskara izateko baliabide eta tresna gehiago eskuragarri izanen ditu UEMA barrenean egonik.

**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK  
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA  
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

**Javier Manterola**  
Taldeko instalazioak  
Iturgintza • gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatatu eta  
barnizatzen ditut  
Sakelakoa: 637 836 023 • LESAKA

**USOA**  
nekozori  
kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 • ETXALAR

**carrho**  
gustatzen duenak  
Tel: 948 635 214 • 948 635 214  
www.carrho.net

## ARANTZA

# Ternida Egunerako ibilaldia antolatu du Ekaitza Elkarteak

Herritik abiatuta, Bagatxar eta Ekaitzan barna eginen da Mendaurrerako bidea

**Nerea ALTZURI**

Ekainaren 7a, igandea, Ternida Eguna da eta erran beharrik ez dago, herritik bertara oinez joateko ohitura handia dagoela.

Ekaitza Elkarteak ia urtero Senberroko bordan bazkaria antolatzen du. Aurten, halere, zerbait ezberdina egiteko intentzioarekin, Mendaurrera ibilaldia egiteko berte bide bat hartzea erabaki du.

Oinezko ibilaldia herritik 8:00etan abiatuko da. Bagatxerrera joan eta Ekaitzatik barna, Mendaurrera ailegatu da. Mendaurtik Senberroko bordara jautsi eta bertan jatekoa emanen da. Eguraldi txarra egiten badu, berriz, elkartean eginen da.

**GOIZUETARA ATERALDIA GIRO EDERREAN**

Bertze mendi ibilaldi bat ere ezin aipatu gabe utzi. Joan den maiatzaren 16an 40 lagunek egun ederra pasatu zu-



ARGAZKIA: FERMIN ELIZONDO

**Eguraldi bikaina eduki zuen koadrilla honek Goizuetara mendiz joateko.**

ten Goizuetan. Arantzako Mendi Itzulia izaten ez den urtean, bi urte behin, alegia, Goizuetara ibilaldia egiteko ohitura abiatu zuen Ekaitza Elkarteak duela urte batzuk. Aurtengoan 37 lagun oinez joan ziren Goizuetara, eguraldi lagun. Bertzalde, bi autotan arropa eta gainerako motxilekin bizpahiru lagun joan ziren. Goizean 8:00ak pasatotan abiatu eta

12:30ak alderako Goizuetan zeuden. Han gustura frexkatu eta triki poteoa egin zuten herrian barna, bazkaldu bitartean. Umore Ona Elkartean bapo bazkalduta, 19:30ean, etxerako autobusa hartu zuten. Egun polita pasa tu zutela erran digute.

## **Sanjuan Eguneko besta**

Joan den urtean bezala, aurten ere Zahar

Txokoko bazkideek elkarrekin ospatuko dute Sanjuan Eguna. Egurdian San Juan Xarren izanen den meza entzun ondotik, 13:30ean bazkaria eginen dute egotzan. Bazkalondoan bertsolariak eta musika doinuak izanen dituzte. Baina bazkarira joan nahi duenak ekainaren 12a baino lehen eman behar du izena. Juntako ordezkariak jakinarazibeharke du zaie.

## **Karrika Nagusian konponketak**

Aitzineko ale batean informazioa eman bezala, Espainiako Gobernutik dirulaguntza jasoko da eta diru partida hori Karrika Nagusian konponketa lanak egiteko erabiliko da. Sasoi enpresari esleitu zaizkiolanak 110.613,73 eurotan, BEZ barne.

## **Bataioa eta komunioak**

Maiatzaren 2an Zeilaiondoko Saioa Etxegarai Maizen bataioa izan zen.

Bertzetik, heldu den ekainaren 14an Bestaberri edo Korpuseko ospakizunarekin batera, urtero bezala, Jaunartzeak izanen dira. 11:30ean meza izanen da. Aurten Ainhoa Altuna Bergara, Iñaki Larretxea Olaskoaga, Noelia Almandoz Lukanbio eta Ane Bereau Etxeberriak Lehenengo Jaunartzea eginen dute.

## KULTURA

### Iaz bezala Julen Zelaietak irabazi du Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketa

Guztira 93 lan aurkeztu dira

#### ttipi-ttapa

Parte-hartze altua izan du Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketaren XXII. edizio honek, guztira 93 lan aurkeztu baitira. Sariak ere dagoeneko banatu dira, maiatzaren 15ean egin ziren.

**A mailan** (12 urte arte), lehenbiziko saria (75 euro eta oroigarria) Gorka Sanjurjo lesakarrarentzat izan da, *Zure lagun hoberena beste he-*

*rri batera joan da bizitzeralanagatik.* Bigarren saria (50 euro eta oroigarria) Paulo Ramos lesakarraren *Uralan* erantzut izan da. Eta hirugarrena (30 euro eta oroigarria) Igantziko Xabat Matxikoteraren *Eskolari agur?* bertsoentzat.

**B mailan** (12-18 urte), lehen saria (150 euro eta oroigarria) Donetztebeko Maialen Belarrak jaso du, *Denboran*



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

**Bertsopaper lehiaketako irabazleak sariak banatu ziren egunean.**

*aurrera, sustraien memorian* lana aurkezteagatik. Bigarrena (100 euro eta oroigarria) Oronoz Mugairiko Amaia Elizagoienaren *Inoiz bizitu ez ditudan momentuak* bertsoek irabazi dute. Hirugarren saritua (50 euro eta oroigarria) Irati Arrie-

ta sunbildarraren *Ikasbi-daia* lana izan da.

**C mailan** (18 urtetik goiti), lehenbiziko saria (200 euro eta oroigarria) iazko berak eskuratu du, Julen Zelaieta beratarrek, *Bi nikitik bikinira* bertsoekin. Bigarren saria (150 euro eta oroigarria) Le-

sakara joan da, eta Aitor Arotzenarentzat izan da. *Senda Vivako azken lintearen testamendua* lanarekin lortu du. Hirugarren saria (100 euro eta oroigarria) Irungo Manu Goioanaren *Baina zuk ni galdu ninduzun* lanarentzat izan da.

# XVII. GASNA eta ARTISAU en FERIA

ETXALAREN 2009ko ekainaren 7an

<b>Egun osoan zehar</b>	<b>12:30</b>
- Andre Mari elkarteko emakumeen eskulanean erakusketa	Herriko trikitilariak
	<b>13:30</b>
	Gasna lehiaketako sari banaketa
<b>Goizean zehar</b>	<b>14:00</b>
- Haurrendako sormen tailerrak plazan	Herri bazkaria
- Moto eta bizikleta zaharren erakusketa	<b>18:00</b>
<b>10:30</b>	Herriko dantzarien saioa
Artisauen erakusketa	

**BORTZIRIAK**

# Udaleku irekiak antolatu dituzte Euskara Mankomunitateak eta Dindaia Fundazioak

Izena emateko epea ekainaren 5ean bukatuko da

**ttipi-ttapa**

Ikasturtea bukatu eta uda ailegatzearekin batera udaleku irekietan parte hartzeko aukera izanen dute neska-mutikoei Arantzan, Beran, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Didaia Fundazioak antolatu dute eta uztailan eta abuztuan izanen dira. 3 urtetatik 8

urtetara eta 8 urtetatik 12 urtetara, bi multzotan banatuko dira gaztetxoak. Tikienek txangoak, eskulanak, jolasak eta antzerkiak egingen dituzte eta zaharrenek sormena eta gorputz tailerrak.

Arantzan, Beran, Etxalarren eta Igantzin uztailaren 6tik 31ra egingen dira eta Lesakan uztailaren 13tik abuztuaren 7ra. Astelehenetik ortzi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ongi pasatzeko aukera ezin hobea dira udaleku irekiak neska-mutikoenzat.

ralera 10:00etatik 13:00-  
etara izanen dira saioak.

Ume bakoitzeko prezioa 65 eurokoa izanen da eta bi anai-arrebena 110 euro ordaindu behar-  
ko da. Hiru senide apun-  
tatzen baldin badira, be-  
rriz, 135 euro.

**IZEN EMATEA**

Interesatu dagoenak ekainaren 5a baino lehen eman beharko du izena, Dindaia Fundazioa deituta (948 277620) edo e-postaz ([info@dindaia.com](mailto:info@dindaia.com)). Izen ematean honako datuok

utzi beharko dira: haur-  
raren izen-abizenak, jaiotze data, ikastetxea, herria eta etxeko hiz-  
kuntza, harremanetara-  
ko telefonoa eta helbide  
elektronikoa (izatekotan).  
Izena eman ondotik egin-  
en da ordainketa.

**UDALEKU IREKIAK**

3-8 urte bitarte

**TXANGOAK**

**ESKULANAK**

**JOLASAK**

**ANTZERKIAK**

**SORMEN ETA**

**GORPUTZ TAILERRAK**

8-12 urte bitarte

**OLIMPIADAK**

**UBA ETA NATURA**

**SUKALDARITZA**

**DIRZIKLAPENA**

**ARANTZA, BERA, ETXALAR, IGANTZI ETA LESAKA**

**IZEN EMATEA**

maiatzaren 25etik ekainaren 5era

**INFORMAZIOA**

Dindaia Fundazioa 948 277620

**UDALEKU IREKIAK**

**2009**




Xabi ZELAIETA

## Etxeko berokuntza eta ur beroan aurrezteko soluzio energetiko garbiak ditu **EKINDARRAK**



**Termo elektrikoa eta Tximinia mistoa:** pelleta eta egurra, bi erregai horiekin funtzionatzen ahal duena



**Tximinia eta eguzki plakak:** ur beroa edota zoru erradiatzaile bidezko berokuntzarako baliagarriak.



**Energia gestorea.** Gasa edo gasolioaren galdara integratua du eta eguzki plakak kontrolatzen ditu. Ur beroa eta berokuntza. **Gastua** -%50a.



**Tximinia pellet eta egurra erretzeko eta ur beroa lortzeko eguzki plakak dituen etxea.**

### **Energia berriztagarri ugari dago. Zeintzuk dira gure inguruan arrakasta gehien dutenak?**

Nik gehien bat *Pellet* eta egurra erretzen duten galdara mistoak eta eguzki plaka termikoak instalatzen ditut. Ohiko tximinietan berokuntza sistemak ere jartzen ditut, egurrak ematen duen beroa aprobetxatzeko.

### **Zer da Pelleta?**

*Pelleta* berez baso hondakinekin egina egon beharko litzateke, baina gaur egun batez ere zerrategietako zerrautsarekin egiten den egurrezko pikortatua da, pentsuaren antzekoa.

### **Zein desberdintasun dago Pellet galdara eta galdara tradizionalen artean?**

*Pellet* galdarak, egurra erretzen duten tximinia automatikoak dira. Galdarak termostato bat du eta temperatura jaisten denean galdara automatikoki pizten da. Gainera, gaur egun, *pelleta* gasolioa baino %40 merkeago ateratzen da. Nahiz eta instalazioa garestixeago atera, eguneroko erregai kontsumoan aunitz aurrezten da.

### **Pellet galdarak bertze erregaiekin konbina daitezke?**

Badira bakarrik *Pellet*arekin dabiltzanak eta egurra nahiz *Pellet*arekin funtzionatzen duten galdara mistoak. Nik mistoak instalatzen ditut gehienbat, *Pellet* bakarrik erretzen duten galdaratan erregai gehiago erosi beharra delako.

Galdara mistoetan, aldiz, egurra zein *Pelleta* erre daiteke edota biak konbinatu, hau da, galdara alde aurretik programatu eta egurra itzaltzen denean *Pelleta* pizten da automatikoki. Galdara mistoak oso gomendagarriak dira gure eskualderako, etxe gehienetan egurra egiteko ohitura baitago, eta modu honetan, bi erregaiak erabil daitezke.

### **Pellet galdarez gain eguzki plakak ere jartzen dituzu. Nolako abantailak dituzte eguzki plakak?**

Hasteko, erran behar da bi eguzki plaketan bi klase daudela, termikoak eta fotovoltaikoak. Termikoak ura berotzeko edota berokuntza sistemari laguntza emateko erabiltzen dira, energia kontsumoaren osagarri gisa. Fovoltaikoak, aldiz, elektrizitatea sortzeko erabiltzen dira eta sortutako elektrizitate hori saldu edota kontsumo propioarako erabili daiteke. Hala ere, etxebizitza partikularretan plaka termikoak jartzea gomendatzen dut. Praktikoagoak eta erren-

tagarriagoak dira. Energia horniduraren osagarri gisa erabiltzen dira eta energia kontsumoa dexente murrizten da.

Horrez gain, instalatzen ditudan eguzki plakak bertze erregaiak erabiltzen dituzten sistemetan erabat bateragarriak dira: gasa, propanoa, gasolioa, egurra, *pelleta*, geotermia... Eta berokuntza sistema guztietarako balio dute: erradiadoreak, zoru bero-emaileak... Gainera, eguzki plakak 20 urteko bizitza minimoa dute, beti ere, instalatutako sistema kalitatekoa baldin bada. Kalitate oneko sistemek iraunkortasuna eta epe ertainera arazorik ez edukitzea bermatzen dute.

### **Eskualde bakoitzaren ezaugarri klimatikoek zerikusia dute eguzki plakak sortzen duten energia kopuruarekin?**

Nik erabiltzen dudana sistema alemaniarra da, gure klimara ongi moldatzen den sistema da. Alemanian Euskal Herrian dugun eguzkiaren erdia izaten dute, beraz plaka hauek gure eskualdean emaitza onak ematen dituzte.

### **Gure eskualdean, jendea energia berriztagarriak jartzearen aldekoa da?**

Nahiz eta urtetik urtera jende gehiagok energia berriztagarrien aldeko apostua egin, aldateta prozesua arras motela da. Leku aunitan oraindik gai ezezaguna eta landu gabea izateaz gain, administrazioek ez dute aunitz egiten egoera hori aldatzeko. Administrazio lokalek eta gobernuek laguntza eta bultzada gehiago eman beharko lukete egoera aldatzeko.

### **Zure ustez zein da jendea gai honen inguruan kontzientziatzeko gakoa?**

Galdera horren erantzuna bilatzea zaila da. Dirua aurrezteko sistema ona da eta bidenabar ingurumenaren kutsadura murrizten dugu, nire ustez hor dago jendea energia berriztagarrien garrantziaz jabetzeko gakoa. Gainera, gaur egun, Gobernuak dirulaguntzak ematen ditu, gutxi gora-behera %50eko dirulaguntzak. Beraz, momentu ezin hobea da horrelako sistemak jartzeko, dirulaguntzen afera urtetik urtera aldatzen baita.

### **Zein instalazio klasetan du aplikazioa energia termikoak?**

Ur beroa eta berokuntza kontsumo dute guztietan aplikatzen ahal da: etxebizitza, bifamiliarrak, etxe ruralak, komunitateak, jantokiak, hotelak, kiroldegia, prozesu industrialak...

## EKINDARRA

IRTENBIDE ENERGETIKO GARBIAK

BIOMASA  
EGUZKI INDARRA  
Termikoa • Fovoltaikoa

EOLIKOA

EcoInnova

ekindarra@ekindarra.com  
Tel. 652 063 220  
Bera ( Nafarroa )

## SUNBILLA

# Naiara Arretxea eta Gorka Bidegain izanen dira igerilekuko arduradunak

Denboraldia ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean akituko da

## Jaione OTXANDORENA

Maiatzaren 15ean izendatu zituen Udalak herriko igerilekuko arduradunak. Eskari bat bakarrik aurkeztu zen aurten lehiaketara eta hura onartu eta beraiei eman zaie ardura. Naiara Arretxea eta Gorka Bidegain izango dira, beraz, datorren ekainaren 15etik irailaren 15eraino igerilekuaren martxa eramanen dutenak. Herriko Nafarroako Kutxako eta Rural Kutxako bulegoetan har daitezke aurtengo denboraldirako txartelak.

Prezioei dagokienean, erran, aitzineko urtekoekin konparatuz, 50 zentimo garestitu direla.

Igeriketako ikastarok arduradunek zehaztutako ordutegian eta prezioan izanen dira.



ARGAZKIA: ZALDUA

## Bortz gaztetxoek Jaunartzea

Bortz neska-mutikok Lehen Jaunartzea egin zuten maiatzaren 10ean. Haritz Bereau, Xabier Mariezkurrena, Junkal Elene Martiarena, Ibai Apeztegia eta June Apeztegiaren txanda izan da aurtengoan.

### 2009KO DENBORALDIKO PREZIOAK UDAL IGERILEKUAN

	HIRUHILABETEKOA	HILABETEKOA	EGUNEKOA
0-6 urteak	Doan	Doan	Doan
6-12 urteak	20 euro	15,50 euro	3,00 euro
12-18 urteak	26,50 euro	22,50 euro	3,50 euro
18 urtetik goiti	39 euro	28,00 euro	4,50 euro



## PERTSONAIA

J. B. BAZTERRIKA

## Malerrekako ahari lehiaketan irabazle

Ez da lehenbiziko aldia Pixanekobordako Jose Bernardo Bazterrikak Malerrekako ahari lehiaketan lehen saria lortzen duela. Eta oraingoan ere irabazi du. Maiatzaren 8an Doneztebeko Udaberriko Feriaren barne ahari mutur gorri eta beltzen lehiaketa jokatu zen, eta Pixanekobordakoa mutur gorrietan txapeldun izan zen. 120 euroko saria jaso zuen.

ESKAINITZA  
ZABALA  
eta ESTILO  
GUZTIAK

Bisita ezazu  
sukalde  
erakusketa  
berria!

Rosa Seminario 13  
DONEZTEBE  
T. 948 450 400



AMAIUR. altzariak

## ITUREN

# Trinitate Eguna ekainaren 7an ospatuko da

Arratsaldean bestak segida izanen du

### Arkaitz MINDEGIA

Ekainare 7an ospatuko da Trinitate Eguna. Goizean Mendaurrera igo eta ermitan meza entzuteko aukera izanen da. Eguerdian, berriz, enbaltsetara jaitsi eta lagun artean bazkaltzeko modua izanen da.

Ohiturari segituz, Ibiltza Kultur Taldeak bazkaria antolatu du egun horretarako eta izena eman nahi duenak Herriko Ostatuan eta harategian egin beharko du. Bazkaldu ondotik, Kristian akordeoilariak alaituko ditu bazterrak eta ilunabarrean Iturengo plazan dantzaldia izanen da.

### PINTADAK

Trinitate Eguna hurbiltzean, auzolanean enbaltsetako bankuak eta Mendaurko ermita garbitu egiten dira urtero. Aurten ere hala egin da, baina lan horiek egin ondotik, pintadak agertu

dira eskualdeko bertze hainbat herritan bezala. Kasu honetan, *España* ageri da idatzia.

### *Ikasturte akaberako kontzertua*

Dagoeneko trikitixa eta pandero ikasleak ikasturte bukaerako kontzertua prestatzen hasiak dira. Urrian hasi eta maiatz bitarte Ainara eta Oihana Mindegiarekin trikitixa eta pandereta ikasten aritu dira eta hori guztia ekainaren 3an egingen duten kontzertuan erakutsiko dute.

### *Gaupasa giro onean*

Maiatzaren 16an egin zen gaupasarekin gustura gelditu da Ibiltza Kultur Taldea. Afarian 90 lagun elkartu ziren eta afalondon bestak segitu egin zuen. Inguruko herrietako jendea ere hurbildu zen eta giro ona sortu zen.



ARGAZKIAK: MIXEL GEREKA

### *Irunberrin ingelesa ikasten*

Maiatzaren 4tik 8ra bosgarren eta seigarren mailako bederatzik ikasleak, Beintza-Labaien eta Eratsungo lauk eta Almandozko bortzek, Irunberriko *English week* proiektuaren barne, ingelesarekin gozatu eta ikasteko aukera izan zuten. Goizez klaseak izan zituzten eta arratsaldean, karaokea, igerileku estalia, bisita gidatuak, ordenagailuak, eskulanak, jokuak, dantza... Irteera honen helburu nagusia ingelesarekin ongi pasatu eta bertze eskolako ikasleekin harremanak izatea izan da. Erran digutenez, primeran pasatu dute.



### *Diska berriaren aurkezpena*

Urteak daramatzate herriko bi trikitalariek herriz-herriz plazak alaitzen eta orain diskoa kaleratu dute. Trikidantz taldeak bere lehen lana grabatu berri du eta ekainaren 13an Lur dantza lekuan aurkeztuko du. Abesti propioekin eginga dago eta hainbat herritarrek kolaboratu dute.





**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Barria, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfno: 948 631 526 - Fax: 948 631 550



## PRIM, c.b.

Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

## DONEZTEBE

# Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala jokatu da larunbatean Zinemán

Hamar bertsolari lehiatuko dira 19:00etatik aitzinera

## ttipi-ttapa

Ikasturte amaierarekin batera, Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ailegatu da bere azkenera. Bertsozale Elkarteak antolatuta, 14 eta 18 urte bitarteko finala larunbat honetan, maiatzak 30, eginen da, Zinemán. 19:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izanen da.

Hamar bertsolari gazte ariko dira taula gainean: Saioa Alkaiza (Iruña), Irati Majuelo (Iruña), Haizea Beruete (Iruña), Patxi Castillo (Bera), Ior Tainta (Lesaka), Josu Sanjurjo (Lesaka), Irati Arrieta (Sunbilla), Maialen Belarra (Doneztebe), Egoitz Gorosterrazu (Ituren) eta Amaia Elizagoien (Oronoz-Mugairi).

Bi fase izanen ditu saioak. Lehenengoan bertsolari guztiak ariko dira eta horietako seik bigarren faserako txartela lortuko dute.

14 urte artekoen Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala, berriz, ekainaren 6an eginen da Larrainzarren, Nafarroako Bertso Eskolen egunean.

## Errekaren eguna ortziraletik

Aitzineko alean aipatu bezala, Erreka elkarrearen eguna eginen da larunbat honetan. Hala ere, aurten, ekitaldiak ortziraletan hasiko dira. 20:00etan Alejandro San Miguel *Sanbak* Montblanc mendira joan zireneko proiektzioa emanen du. Arratsean, berriz, San Luzia Plazan Mus Txapelketa eta pintxo jatea izanen dira.

Larunbatean, berriz, egun osoan izanen dira ekitaldiak. 10:00etan gazteen arteko eskubaloi partidak: alebin neskak, alebin mutilak eta infantil neskak ariko dira. 12:00etan Errekako Judo Eskolako erakustaldia. 16:00etan jubenil mailako mutilen eskubaloi partida: Erreka-Laguna. 17:00etan jubenil neskak lehenagoko nesken taldearen kontra esku-baloian. 18:00etan seniorren partida: Errekakoak Portland eta Anaitasuna taldeko jokalarien kontra. 21:00etan herri afa-ria izanen da San Luzia Plazan, eta ondotik, gaurpasa Jalisko Band taldearekin.



ARGAZKIA: ZARBO

## Amezitia eta Titikoak, lehiaketa pintxorik onenak

Hilaren 13an banatu ziren maiatzeko zubian egindako bigarren pintxo lehiaketako sariak. Bi sari banatu ziren. Alde batetik, lau adituk osatutako epaimahaiak Amezitia ostatuaren pintxo aukeratu zuen, eta bezeroek, berriz, Titirena. Guztira zazpi ostatu parte hartu zuten lehiaketan eta antolatzaileak zein parte-hartzaileek gustura gelditu ziren. Ostatu guztiek jaso zuten aipamena. Argazkia sari banaketa eguneko da.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

## Udaberriko feria giro onean

Udalak Nafarroako Gobernuaren eta Cederna Garalur elkartearen laguntzaz antolatuta, Udaberriko Feria egin zen maiatzaren 8an hirugarren aldiz. Horren barne, Malerrekako Ahari Lehiaketa egin zen Merkatu Plazan. Aurten 11 buru aurkeztu ziren. Lehiaketa ahari mutur gorri eta mutur beltzendako irekia izaten bada ere, aitzineko edizioetan gorriak bakarrik azaldu ziren. Aurten, berriz, ahari muturbeltz ederra aurkeztu zuen Urrozko Eustasio Mariezkurrenak eta beretzat izan zen 120 euroko saria. Mutur gorrien atalean, joan den urtean bezala, lehen sailkatua Sunbillako Pixarnekobordako Jose Bernardo Bazterrikaren aharia izan zen eta 120 euro eskuratu zituen. 70 euro bigarren saria Ezkurrako Ibia baserriko Ana Isabel Mutuberriak eskuratu zuen eta 50 euro hirugarrena Elgorriagako Barbeneko Juan Mariezkurrenak. Dena den, ahariak baino gehiago behi buruak agertu ziren, aunitz bere aretxekin, baita zaldiren bat edo bertze ere. Nekazaritzako tresneria ere ikusgai egon zen, nahi zuenak erosteko. Bitartean, eskualdeko artisauen lanen erakusketa eta salmenta ere izan da. Berez, Merkatu Plaza ondoan egoteak ziren, baina euriaren beldur, Eliz atarira eraman zituzten.

**BEINTZAKO OSTATUA**  
 ☎ 948 45 00 14  
 www.alfonbrak.com  
 www.alfonbrak.com  
 www.alfonbrak.com  
 www.alfonbrak.com  
 www.alfonbrak.com  
**ORBELÁ**

**ZUBIONDO**  
**Jatetxea**  
 sagardotegia jatetxea  
 Alasta karrika  
 BERA NAFARROA

**ttipi**  
**ttapa**  
 ☎ (0034) 948 635458

arropak - mairidireak  
 mantak - nordikoak  
 toallak - kortinak  
 alfonbrak  
**Goya**  
 Altsas, 3 - Tel: 948 630 083

## HEZKUNTZA

# Ekoagente lehiaketan Doneztebe eta Berako institutuak



Sari banaketa ekainaren 5ean egingen da

### ttipi-ttapa

Ikasleek ingurumenaz solasteko, eztabai-datzeko eta lan egiteko Internet erabilteza erabaki du aurten Ceder-na-Garalur elkarteko teknologia berrien arloak, Europe-Direct informazio gunearekin batera. Egunero egiten ditugun gauzek ingurumenean zer eragin izan dezakeen ikusteko web-orria ere sortu dute, [www.diadeinternet.garalur.com](http://www.diadeinternet.garalur.com).

Web orri horretan zintzilikatutako informazioan oinarrituz, lehiaketa bat ere hasi da, DBHko ikasleei zuzendua. Nafarroako mendialdeko lau institutuk hartu dute parte lehiaketa honetan eta tartean daude **Doneztebe**ko Mendaur eta **Berako** Toki-Ona. Eurekin batera, Otsagiko institutua eta Zangozako Sierra de Leyre institutua ari dira.

### SARIAK EKAINAREN 5EAN

Lehiaketa bi astez egin zen. Maiatzaren 11 eta 13an, Interneten Eguna aprobetxatuz, eta maiatzaren 22 eta 26an. Ingurumena zaintzeko proposamen sortzaile eta originalenak sarituko dira eta sariak ekainaren 5ean banatuko dira, Europako Ingurumenaren Egunarekin batera.

Hilaren 11n, Doneztebeko DBHko ikasleen txanda izan zen eta orduko argazkia da goian ageri dena.

Ekaina  
Junio

6

2009

## Bertizaranako II Herri Krossa

Legasa / 7,5 km

Inskripzioa 3€

[www.herrickrossa.com](http://www.herrickrossa.com)

Ordua  
Hora

11

Goizez



LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES



Noticias  
*Eres lo que lees*



ttipi-ttapa



AROTXA  
RESTAURANTE JOFETKES



CAJA LABORAL  
ELISKADIKO KUTXA



ESTHER  
LORE-DENDA



NARBARTEKO  
HERRIKO OSTATUA



can



NARBARTEKO  
DENDA



PANPOX  
Ilepaindegia



NARBARTEKO  
AROTZA

Bertizaranako Udala Legasako Kontzejua Narbarteko Kontzejua Oierregiko Kontzejua

2009/05/28 • 495. zbk.

## BEINTZA-LABAIEN

# Eskola gaineko etxebizitza berritzen ekainean hasiko dira

45.663 euroko aurrekontuarekin Etxart Ansalas enpresak egingen du

## ttipi-ttapa

Espainiako Gobernuak 45.663 euroko dirulaguntza iragarri du herriarentzat, eta subentzio hori eskola gaineko bizietxea eraberritzeko erabiliko da. Etxart Ansalas enpresa izanen da obra egingen duena eta lanak ekainean hasiko dira.

Garai batean irakasleen bizitokia izandakoa da solairu hori, baina azken urteotan hutsik zegoen eta denborarekin okerrera egin du. Orain, ordea, zaharberritu egingen da eta behin konponduta errentan ematea da asmoa. Nahi izanez gero, herritarrek edukiko lukete lehentasuna.

## Labaiengo ostata zabalik

Urte pare batez itxita

egon da, baina Labaiengo Herriko Ostatuak berriz zabaldu dituzte. Herritar batek hartu du ardura eta maiatzaren 1ean ireki zuen.

Hemendik aurrera, ostiraletan arratsalde eta gauez, eta larunbat eta igandetan egun osoan irekia egonen da. Ostatu zerbiztuaz gain otor-

duak ere eskainiko dituzte. Hasiera batean lau urtekoa izanen da errentaren iraupena, baina sei urtera luzatzeko aukera izanen da.



ARGAZKIA: ENARA ARROBARREN

## Irunberrin ingelesa ikasten

Eskualdeko beste hainbat ikasleekin batera, ingelesa ikasteko *English week* programan hartu dute parte Liernik eta Anak. Horretarako Irunberrin izan ziren maiatzaren 4tik 8ra eta gisa guztietako jarduerak egin zituzten.

## ZUBIETA

## 362.600 euroko udal aurrekontua onartu da

### ttipi-ttapa

362.614,03 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2009rako. Aurreko urtearekin alderatuz, %25 haundia da. Joan den urtean 271.584,74 eurokoa izan zen. Aurtengo inbertsio nagusien artean Aurkidiko bidea konpontzea eta mendiko lanak egitea daude. Aurkidiko bideko lanetarako 62.588 euro aurrekusi dira eta mendiko lanetarako 68.347 euro.

### Antzerkia larunbatean

Udaberriko Biraren barne, Kiki, Koko eta Moko pailazoen *Txin-txilin* bakean eginikus-kizuna eskainiko dute larunbatean, maiatzak 30, 19:00etan.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrea S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

**OITZ**

## Hirigintza Plana nork eginen duen erabakiko du laster Udalak

Lehiaketara sei arkitektu talde aurkeztu dira

**ttipi-ttapa**

Bi urte barru, etorkizunean herria nolakoa izanen den zehaztuko duen Hirigintza Plana esku artean izatea espero du Udalak. Horrela azaldu dio Alberto San Miguel alkateak **Ttipi-Ttapari**. Martxo hondarrean Hirigintza Plana egiteko deialdia egin zuen Herriko Etxeak eta sei arkitektu talde aurkeztu ziren. Orain, aurkeztutako dokumentazioa aztertzen ari dira eta San Miguelen hitzetan, «*ekainerako aukeratzea espero dugu*». Behin lana esleituta, «*bi urteren buruan egina izanen dela uste dugu*», dio alkateak. Legealdia akitzera, beraz.

Aitzineko legealdian ekin zion Udalak Hirigintza Plana lantzeari, baina azken udal hau-

teskondeetan zerrendarik aurkeztu ez zela eta, denboraldi batez ordezkaririk gabe egon zen Herriko Etxea, eta horregatik bertan behera gelditu zen asmoa. Halere, orain, aitzinera segitzen du.

**Depositu berriko lanak bide onetik**

Ur depositu berria eraikitzeko lanak aitzinera doaz. Udalak martxo hasieran esleitzion obra Sasoi enpresari, eta alkateak aipatu digunez, hilabete edo hilabete eta erdi barru depositu berria akitua egonen da.

Lan hauen aurrekontua 128.487 eurokoa da eta bere garaian iragarri bezala, Nafarroako Gobernuak 60.012 euro bideratuko ditu.



ARGAZKIAK: ALBERTO SAN MIGUEL

**Hiru langile mantenimendu lanak egiteko**

Espainiako Gobernuaren dirulaguntzarekin egitekoak ziren lanak akitu dira. 27.256 euroko subentzioa hartu zuen Udalak eta horrekin plaza ingurua zolaberritu da. Coyser enpresa arduratu da eta goiko argazkian ageri den bezala gelditu da. Bertzalde, Nafarroako Gobernuo Enplegu Zerbitzuak Udalarari eman dion 14.070 euroko dirulaguntzarekin, hiru langile kontratatu dira mantenimendu lanetarako. Ofiziala, bigarren mailako ofiziala eta peoia, hirurak herritarrak, maiatz hasieran hasi ziren lanean, eta bi hilabete eta erdi ariko dira. Hauek izanen dira euren eginbeharrak: pilotalekua pintatu eta hango paretak eta sareak konpondu eta herriko kalezada eta hondatuak dauden harrizko paretak konpondu. Joan den urtean Enplegu Zerbitzuko dirulaguntzarekin kontratatutako langileek Herriko Etxean sartzeko ezinduentzako arrapala bat egin zuten, eta aurtengoa, arrapala hori aprobetxatuz, ostatura sartzeko ate berria eginen da.

**STIHL eta VIKING aukeratzen duzunean makinarik hoberena baino askoz ere gehiago eskuratuko duzu.**

Zure lorategirako behar duzun guztia zuregandik oso hurbil dagoen STIHL eta VIKING-en Banatzaile ofizialean aurkituko duzu

**BANATZAILEA**

**José Luis San Miguel**

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

## BERTIZARANA

# Bertizaranako Eguna ekainaren 6an egingen da Legasan

Egitarauaren barne, krosa egingen da aurten bigarren aldiz

## ttipi-ttapa

Bertizaranako gazteek antolatuta, Bertizaranako Eguna egingen da ekainaren 6an, larunbatarekin, Legasan. 2002an egin zen lehenbiziko aldiz besta hau, Bertizaranako hiru herriak –Narbarte, Legasa eta Oiategi– elkartu eta bailara bezala bizirik daudela adierazteko. Helburu horrekin prestatu dute aurteko egitaraua ere.

Goizean, 9:00etan dianak izanen dira Bertizaranako txistulariekin. Hiru herrietan barne ibiliko dira, Oiategi, Narbarte eta Legasan. Segidan, 9:30ean gosaria egingen da eta 11:00etan krosa.

Lehenengo urtean egin zen lehenbiziko aldiz lasterketa eta orduko arrakasta ikusita, berriz egitea erabaki dute antolatzaileek. Joan den urteko toki berdintsuetatik igaroko da, baina aurten Legasatik hasita. 7,5 kilometroko lu-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Urteti kurtera indartzen ari den besta bihurtu da Bertizaranako Eguna.

zera izanen du eta Legasako plazan hasi eta Narbarte eta Oiategi barna igaroko da. Oiategitik Legasarako buelta errekararen bertze aldetik egingen du, bide-

an Narbarte utzita.

Krosaren ondotik, 12:00etan, erraldoien txanda izanen da eta segidan dantzarien saioa hasiko da. 14:30ean bazkaria egi-

nen da eta 17:30etik aitzinera, bazkalondoa animatzeaz akordeoi-lari bat arduratuko da. Gauean, 22:00etan afa-ria egingen da eta gauerditik aitzinera Trikidantz

taldearekin dantzaldia izanen da.

## Reparazea Jauregia eta zubia ondare kultural

Nafarroako Gobernuak Interes Kultureko Ondare izendatu ditu Oiategiko Reparazea Jauregia eta zubia. Gobernuak asmoa jakinarazi zuenean, bi alegazio aurkeztu ziren horren kontra baina biak gibelera bota zituzten.

Jauregia XVIII. mendearen bukaeran eraikitakoa da eta Erratzuko eta Irurritako Gaston Iriarte jauregiaren lotzen dute adituek, bertzeek bezala, bi aldetara bi dorre dituelako eta altuera baxuagoa duen bertze eraikin baten lotzen dutelako.

Bidasoa ibaiaren gainetik doan zubia, berriz, Erdi Arokoa da, jatorri erromanikoa duena. 1991 eta 1992 urteen artean zaharberri-tu zuten.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autoonomaok</li> <li>☞ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berritzaileentzako sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbaritasun eta jubilatze espedienteak</li> <li>☞ Bidegarietasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
---	--

artekari@artekari.com

**LESACA:** Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** Lo Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

## Lizardi

Telekomunikazioak

Facebook  
 Twitter  
 YouTube

TDT Instalazioak  
 TB Instalazioak (satelite, lurkekoak)  
 Instalazio indibidualak eta kolektiboak  
 Portero automatikoak  
 Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720  
 pxe@lizardi@hotmail.com



## BERTIZ

### Erreken egoera hobetzen segitzeko akordioa sinatu dute Gobernuak eta Ur Konfederazioak

Informazio jardunaldia egin zuten hilaren 15ean Bertizko Parkean

#### ttipi-ttapa

Kantauri aldera isurtzen duten Nafarroako erreken egoera hobetzen segitzeko asmoak aitzinera segitzen du. Maiatzaren 15ean horretarako elkarlan hitzarmena sinatu zuten Bertizko Natur Parkean Begoña Sanzberro Gobernuako Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak eta Jorge Markinez Kantauriko Ur Konfederazioko presidentek. Sinadura ekitaldiaz gain, informazio jardunaldia ere izan zen eta bertzeak bertze, Bortziriak, Malerreka, Basaburua, Bertizarena eta Baztango udal ordezkariak eta arran-

tza elkartetako kideek parte hartu zuten.

#### ORAIN ARTE EGINDAKOA

Bi erakundeek azken urteetan egindako lanaren berri eman zen eta horren arabera, 2005etik honat 15 proiektu landu dira eta 2009an bertze 10 bukatzea aurreikusia dago. 2005-2009 urteen artean, erreken egoera hobetzeko 2,55 milioi euro inbertitu dituzte Nafarroako Gobernuak eta Ur Konfederazioak.

Zehazki, 2005az geroztik arrainendako zortzi eskala egin ditu Gobernuak Bidasoa errekan eta Tximista, Zia,



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

#### Udal ordezkariak informazio jardunaldian.

Zeberia eta Artesiaga erreketan eta Baztanen Opoka presaren erdiko zatia bota du. Gainera, 171.588 euroko dirulaguntza eman zion Baztango Udalari erreka bideratzeko zenbait lan egiteko. Konfederazioak, bere aldetik, Bidasoa errekan eta Tximista, Latsa eta Onin erreketan ere oztopo batzuk kendu ditu.

#### AURTEN 1,6 MILIOI EUROKO INBERTSIOA

2009an egin beharreko proiektuei dago kienez, 1,6 milioi euroko aurrekontua izanen

dute eta erreken egoera ekologikoa hobetzera bideratuak izanen dira. 45 lanpostu ere sortuko omen dute lan hauek.

Nafarroako Gobernuak Leitzako piszi-faktoriako nazan arrai-nendako eskala egingen du, 115.000 euroko aurrekontuarekin eta bertze bi eskala egingen ditu Oronoz-Mugairiko zentralako nazetan, Marin eta Zeberia erreketan, 130.000 euroko aurrekontuarekin. Lehendik aipatu bezala, zenbait udalek ere erreken garbiketa lanak egi-

teko dirulaguntza hartu dute Nafarroako Gobernutik.

Kantauriko Ur Konfederazioak ere inguru honetako erreketan eskalak eraiki edo botatzeko lanak egingen ditu, 990.000 euroekin; zaborra kenduz erreka bazterretako egoera ekologikoa hobetzeko bi proiektu gauzatuko ditu, 400.000 euroko aurrekontua izanen dutenak eta Bidasoa ibaiaren inguruan inbaditzaileak diren zuhaitzen kontra 84.000 euro erabiliko ditu.

edredoi fundak

albornoak

edredoi nordikoak

ohe estalkiak

maindirak

mantelak

kuxinak

toailak

1951tik

*Casa Cambra*

lentzeria-etxea

**2009ko udaberriko-udako kolekzio berria**

Tafalla, 13 • IRUÑEA

948 230 634



ttipi-ttapa

23.000 iritzi,  
23.000 lagun  
23.000 mila aldiz  
eskertuta ere,  
motz geldituko ginen

ttipi-ttapa  
23.000 irakurle



Guaixe  
15.000 irakurle

D. Navarra  
14.000 irakurle



D. Noticias  
9.000 irakurle



Bertzeak  
5.000 irakurle



Gara  
6.000 irakurle



Berria  
1.000



Marca  
2.000



IRAKURLE KOPURUA

#### ADINAREN ARABERA



20-24 urte	% 5,7
25-34 urte	% 33,2
35-44 urte	% 17,1
45-54 urte	% 13,1
55-64 urte	% 16,3
+ 64 urte	% 9,9

#### IKASKETA MAILAREN ARABERA



ikasketarik gabe	% 7,5
lehen ikasketak	% 8,4
tertiario heziketa	% 20,8
banderagoa	% 31
unibertsitatea	% 32,2

#### SEXUAREN ARABERA



emakumeak	% 46,3
gizonak	% 53,7

## BERTIZ

# ‘El Pais del Bidasoa’ pasaportea sortu dute Bertizko Turismo Partzuergoko hotelek

Bortz gau igarotzen dituzten bezeroek seigarrena doan izanen dute

### ttipi-ttapa

Bertizko Partzuergo Turistikoko hotelen elkarreak, promozio eta fidelizazio ekimen bat mar txan paratu du. Hotelek bezeroei emanen dieten pasaporte bat da eta bertan, pasako dituzten gauak erregistratuko dira. Honela, bortzgarren gaua igarotakoan, seigarrena doan izanen da. Pasaportearen izenean eginen da, eta aukera ematen du bertze bi onuradun agertzeko. Horrela, bigau pasako dituen bezero batek, pasaporte lagun edo senide bati ematen ahal dio, behar diren bortz gauak osatzeko eta seigarrena doan izatea ahalbidetzeko. Ekimen honetan Barojaren *País del Bidasoa* deitura aprobeztatu da.

Parte hartzen duten hotelak, Baztan-Bidasoakoak dira: Etxalariko Benta Hotela (Etxalar), Amezti Hostala (Doneztebe), Donamariako Benta Hostala (Donamaria), Ezkurra Hostala (Ezkurra), Saskaitz Hotela (Elizondo) eta Elbeteko Posada Hostala (Elbete).

Pasaporteak urbeteko iraupena izanen du, bezeroari ematen zaion egunetik hasita. Ekimen hau Partzuergo osatzen duten elkarte desberdinetako lanen adibide bat bertzerik ez da, izan ere, egun, Partzuergo udarako dinamizazio proiektuen prestakuntzan murgilduta dago, lehena Natura eta Artisautzaren Feria izanen dal, igande honetan, hilak 31, Bertizeko Natur Parkean.

### ICO – Rural Kutxa hitzarmena

**Rural kutxa, ICO 2008 lerroen bidezko finantziazioan erakunde dinamikoa da, 170 milioi euro baino gehiagoko kontzesioekin.**

**Rural Kutxan, orain, eta**

# BETI

**enpresa, autonomo eta partikularrak laguntzen ditugu.**

**ICO Pymes Lerroa**  
Aktibo finko berriak finantziatzeko ETEei (enpresa txiki eta ertainak) eta autonomoei.

**Baldintzak:**

- Gehienekoa: Inbertsioaren %100 maileruan edo leasing-ean, 1,5 milioi € gehienez.
- Epea: gehienez 10 urte eta epearen arabera (gehienez 3 urte), gabealdirako aukerarekin.
- Interes Tipoa: ICO + %1,75% erreferentzia, sehilabeteroko berrikuspenarekin.

**ICO Plan Viva Lerroa**  
Ibilgailu berriak nahiz erabiltak finantziatzeko, pertsona fisiko, autonomo, mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainei.

**Baldintzak:**

- Epea: gehienez 5 urte, urtebeteko gehieneko gabealdiarekin.
- Interes Tipoa: lehen 10.000 € %0an, gainerakoa ICO + %2,5 erreferentziarekin.
- Komisiorik gabe.

**ICO Likidez Lerroa**  
Zirkulazioko kapitala finantziatzeko autonomo eta enpresa txiki eta ertainei.

**Baldintzak:**

- Zenbatekoa: gehienez 500.000 € onuradun bakoitzeko.
- Epea: 3 urte, 6 hilabeteko gabealdia barne.

**Eta gainera**

- ICO Emprendedores Lerroa
- ICO Crecimiento Empresarial Lerroa
- ICO Internacionalización Lerroa
- ICO Avanza Lerroa
- ICO Plan Renove Turismo Lerroa
- ICO Moratoria Pymes Lerroa
- ICO Moratoria Hipotecaria Lerroa

nire aukera



www.turismo.com  
Tel: 945 510 002

## LEITZALDEA

# Mendebaldeko Bertsopaper Lehiaketan saritu dituzte ikasleak

Maiatzaren 14an banatu ziren sariak

## ttipi-ttapa

Nafarroako Eskolarteko Bertsopaper Lehiaketa zonaldeka jokatzeko da eta Leitza, Goizueta, Areso eta Arano mendebaldeko zonaldean sartzen dira. Lehiaketa hiru mailatan banatzen da. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek bertso bat edo bi kopia aurkeztu behar dituzte. 5. eta 6. mailakoek bi bertso eta DBHko lehen bi mailakoen hiruna bertso.

XXIII. edizio honi dagokionean, eskualdeko sari banaketa ekitaldia maiatzaren 14an egin zen Leitza zinemaretoan. Leitza, Goizueta, Areso eta Lekunberriko eskolako partaideak bildu ziren.

## SARIAK

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan Leitza, Erleta eskolako Joanek Illarregi izan zen irabazlea. Aipamenak Areso eskolako Beñat



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Gaztetxoak sari banaketa egunean.

Etkezaretak, Erletako Beñat Aitzelaik eta Goizueta Xalto eskolako Indar Albisuk jaso zituzten.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan, berriz, Leitza eskolako Martxel Intxaustik eraman zuen lehen saria. Aipamenak banatzeko Areso eskolako Saioa Baraibar eta Xalto eskolako Miguel Andueza eta Lucia Etxeberria auke-

ratu zituzten.

Bigarren Hezkuntzako 1 eta 2. mailan, azkenik, irabazlea eta bi aipamenak Goizueta

joan ziren. Ainhoa Zabaletarentzat izan zen lehen saria eta aipamenak Janire Bakero eta Mikel Oartzabalentzat.

# Bai Euskarari Ziurtagiria indartu nahi du Euskara Zerbitzuak

Langilea kontratatuko du sustapen lana egiteko

## ttipi-ttapa

Aurten ez da Bai Euskarari Ziurtagiriaren ekitaldirik eginen, bi urtekin behin eginen delako, baina halere, ziurtagiria indartzekolanean segitzen du Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzuak. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen pertsona bat kontratatzea da ziurtagiria duten entitate guztiengana joan eta bakoitzak dituen konpromisoen eta bakoitzaren egoeraren segimendua egiteko. Horren arabera, elkarteak ziurtagiria berrituko lieke. Gi-

sa berean, ziurtagirik ez duten entitateei ere eskuratzeko gonbitea egin nahi die Euskara Zerbitzuak.

Bestalde, hainbat dira Euskara Zerbitzuak aurten landu dituen proiektuak. **Goizuetan**, Kultur Taldearekin batera, Xapo aldiakariaren 8. alean kaleratu dute hila honetan. Ordenagailuan euskaraz lan egin eta software librea erabiltzeko ikastaro bat ere egin dute eta irakurzaletasuna bultzatzeko euskarazko produktuak paratu zituzten Txino auzoko bestetan.

Bestalde, urritik maiatzera ludoteka abiatu zuen **Leitzan** eta **Areso**. Ikasturtea ostegun honetan Areson eta ostiralean Leitzan bukatuko da. Gainera, aurten ere udarako aisaildi eskaintza antolatu da Leitzan: Haur Txokoa eta tailerra gaztetxoentzako.

Azkenik, esan, helbide elektronikoa duela Euskara Zerbitzuak: [laga@iparmank.org](mailto:laga@iparmank.org). Hona helbidearen azalpena: *laga*, 'L'aitza, 'A'reso, 'G'oizueta eta 'A'rano eta *iparmank*, 'ipar' radeko 'mank'omunitatea.

## GOIZUETA

### Urtebetetze haundi baten neurriko kontzertua

Ozenki, Mendi eta Umore Ona koruek kantatuko dute herrian ekainaren 7an

#### Esteban AROTZENA

Umore Ona peñaren 50. urtebetetzearen bueltan edo aitzakian ekitaldi frango antolatuko da hurrengo Ama-birjinak igaro artean, aurreko alean aurreratu genuen bezala. Bereziarena, seguru aski, hileraren 7an ospatuko dena izanen da, ez baita sekula era horretako musika emanaldirik izan herrian, koru topaketa, alegia.

Urteurren borobil eta haundi horren neurriko emanaldia antolatu nahi izan du peñatik sortu eta izen bereko elkarrearen atal den Umore Ona koruak. Horretarako jarri zen harremanetan Ereñozuko Ozenki eta Doneztebeko Mendi abesbatzekin. Eta hauen baietza jaso orduko, garagarriaren 7an 12:00etan Elizan burutuko den kontzer-

tua antolatzeari eta bere errepertorioa prestatzeari ekin zion.

Kontzertuari buruzko hainbat xehetasun aipatuz, esan, laupaz-bost abesti kantatuko dituela koru bakoitzak bere aldetik, eta beste hiruzpalau hirurak batera kantatuz. Ozenkik irekiko du kontzertua eta anfitrioiari dagokion bezala, Igaratza Apeztearen taldeak emanen dio bukaera, hirurak batera egin beharreko lanari ekin aurretik. Ordu bete pasatxo emanaldia guztira. Kalejiran ere kantatuko dute herrian barrena abesbatzek, 15:00etan elkartean eginen duten bazkarira joan aurretik. Han ere ez dira isilik egonen, noski, baina hori Umore Onan elkartuko diren 100 abeslarien arteko festa izanen da.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

#### Betizu herrizaleen kontrako neurriak

Herriko kaleetan barrena, betizuak ibiltzeak sortzen duen arriskuak eta jendearen haserreak bultzatuta, azienda hauek bahitu eta Foru Poliziari deitu izan dio Udalak. Horieta batean, isuna eman zioten jabeari poliziek. Honetaz gain, askotan bildu da alkatea Landa Garapen eta Ingurumen Departamentukoekin. Aipatutakoaz aparte, Nafarroako Gobernuak, alkateak esan zigunez, ez dio saneamendua igaro betizu herrizaleen esplotazioari. Udalak, bere aldetik, PAC zertifikatua –larre komunalean bazkatzeko eskubidea ematen duena– ukatu dio.



UTZITAKO ARGAZKIA

#### Grebaren jarraipen osoa

Tabernak, dendak, Udala, eraikuntza sektorea, eskola... Guztiak geldiarazi zituen *eredu ekonomiko eta sozial justu baten alde* maiatzaren 21erako deitua zegoen grebak. Jarraipena, beraz, erabatekoa.

**APARAN, S.A.**  
**BORXOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 060  
 Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Behetik**  
**ANILAT JASOTZAILERAK**

Añorgatik 14  
 Tel: 943 368 781  
 671 073 688  
 behetik@behetik.com  
 www.behetik.com  
 20018 DONOSTIA



## LEITZA

# Udako tailerretan izena emateko epea ekainaren 3an zabalduko da

Ekainaren 29an hasiko dira

## Asier IMAZ

*Udan ez gelditu etxean* lelopean Udalak, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Euskara Zerbitzuak gaztetxoenek udako oporrak hartzen dituztenerako, tailerrek antolatuta dituzte ekainaren 29tik abuztuaren 7ra.

3-6 urtekoentzako Haur Txokoa izanen da. Elkarkidetzak suspertzeko jolasak, kirolak, ekintza artistikoak eta ingurumena ezagutzeko jarduerak egingen dituzte.

6-12 urteko haurrek ere hainbat tailerretan parte hartzen ahal izanen dute. *Aire, aire!* ikastaroan, jolasak, irteerak, jokoak... egingen dituzte. Ekainaren 29tik uztailaren 3ra izanen da. Uztailaren 6tik 10era *Sukaldean esperimentatu* tailerra egingen da, usaimena, zaporea, ikusmena, ukimena eta esperimentazioa sukaldean lantzeko.

*Hi haiz artista!* uztailaren 13tik 17ra izanen da, «*perfekzioa ahaztu eta artearen mundua zure modura disfrutatzeko*». Uztailaren 20tik 2ra *Makinekin jostatu* ikastaroa eskainiko da, mekanismoak ezagutzeko.

*Munduari bira aste batean* uztailaren 27tik 31ra egingen da, beste herrialdeetako musika, hizkera, jantziak eta jolasak ezagutzeko. Abuztuaren 3tik 7ra, azkenik, *Momenturik hoberenak* tai-

lerrarekin, esperientziarik goxoenak errepikatzeko modua izanen da.

Izena eman nahi duenak ekainaren 3tik 12ra bitarteko epea izanen du, 012ra deituta. Informazio gehiago: 948 510840.

## Aste Kulturala

Aurreko alean aipatu bezala, egun hauetan ere izanen da non gozatu. Aste Kulturalari igande honetan bukatuko da.

### MAIATZAK 28

20:00etan Aurreran **hitza**ldia: *1512ko Nafarroaren konkista*.

### MAIATZAK 29

20:00etan Torrean **antzerkia**: *Nik egin beharko & ko*.

00:00etan Torrean **heavy kontzertua** Kantaflo taldearekin.

### MAIATZAK 30

9:30ean plazatik oinez abiatu eta **eskaldada** saioa trenbidean (Kandaletxan)

11:00-13:00 igerilekuan **graffiti tailerra**: *emaiozu igerilekuari sensualitate puntu bat II*.

19:00etan zineman *Mendiko Eskia Kaukason* **ikuskizuna**.

20:30ean plazan folk **kontzertua**.

### MAIATZAK 31

11:00-20:00 plazan **XXI. artisau azoka**.

20:00etan plazan **dantzaldia** Garraxi taldearekin.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Garaipen itzela Arbizuren aurka

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan Leitzak Arbizuren aurka jokatu zuen maiatzaren 23an Amazabal pilotalekuan. Lau mailatan neurtu ziren bi herriak eta etxekoek lau garaipenak eskuratu zituzten. Alebinen partidari Jon Lezea-Ander Eskudero bikoteak 18-10 irabazi zuen. Infantiletan Anartz Olanok eta Mikel Hernandorenak 18-0eko garaipena lortu zuten. Jubeniletan Xabier eta Jon Jaunarena erraz nagusitu ziren, 22-5. Azkenik, seniorretan, Aritz Sagastibeltzak eta Mikel Iriartek 22-4 irabazi zuten. 4-0 emaitza honekin finalerdietan sartzeko aukera handiak ditu Leitzak, izan ere, lehen jardunaldian, Uharteren aurka berdinketa lortu zuen. Txapelketan aurrera egiteko bi bide daude: multzoko lehen postua lortu edota hiru multzoetako bigarren onena izan.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

## Pirata txiki ugari pailazoei begira

Txaloak lehenik, gero zurrumurruak eta azkenean oihiak. Horrela egin zieten harrera haurrek Pirritx, Porrotx eta Marimototsi. Batzuk pailazoz margoturik gerturatu ziren. Denen artean kiroldegia bete egin zuten maiatzaren 13an, ia sarrera denak saldu baitziren. Hiru euskal pailazoei eta euren lagunek *Piratak* ikuskizuna eskaini zuten txiki eta handien gozamerako.

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

 **Gure Haragia**  
**Nuestra Carne**

## ARESO

# Zirika Zirkus taldearen eskutik antzerkia ikusgai larunbatean

Ikuskizuna plazan izanen da eta 18:00etan hasiko da

### Juana Mari SAIZAR

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udaberriko Biraren barnean, larunbat honetan, maiatzak 30, antzerkia ikusteko aukera izanen da. Zirika Zirkus taldeak *Ametsetan* ikuskizuna eskainiko du, 18:00etan plazan.

### Aipamenak Bertsopaper Lehiaketan

Eskolarteko Bertsopaper Lehiaketan, bi gaztetxo aresoarrek aipamenak jaso dituzte bosgarren eta seigarren mailakoen artean. Beñat Etxezarreta eta Saioa Baraibar izan dira aipamena jaso dutenak. Edonola ere, parte hartzea da garrantzitsuena eta lanean jarraitzea.

### Migel Aingeruaren bisita

Migel Aingeruaren bisita izan dugu hilabete honetan, eta ohiko ibilbidea eta bedeinkape-

nak egin zituen herriko plazan, baita gaixoei bi-

sita egin ere. Bisitaren buelta gelditzen da orain

eta hori irailaren lehen igandean izanen da.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

**Lau herrietako gaztetxoek topaketa arrakastatsua**  
Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko neska-mutikoen X. topaketa izan da aurtengoa eta hitz batekin borobidu daitekeena: ederra. Oso antolakuntza ona, jendearen parte-hartzea bikaina, umeen gozamena eta eguraldiak jarri zuen kolorea. Ederki joan zen eguna. Musika doinuek eta algarak alaitasuna jarri zuten eta helburua emaitza onarekin bete zen.



### PERTSONAIA

Anartz OLANO

## Txapelak lortu eta lortu lan bikaina eginez segitzen du

Momentu onean dago Anartz Olano pilotari gaztea, eta emaitzek eurek hitz egiten dute, denboraldi bikaina egiten ari baita. Malerrekako eskuz binakako txapelketan, adibidez, finalean Iparra lagun zuela irabazi egin zuen eta Zizurko lau t'erdiko finalean ere txapela lortu zuen. Zaramagako txapelketan Tolosa lagun zuela irabazi zuen. Oraindik lanean jarraitzen du eta une honetan hiru txapelketetan parte hartzen ari da. Horien berri emanen dugu aurrerantzean.

**COLCHONES ATSEDEN**  
**KOLTXOI FABRIKA**

Zure ametsen fabrika

**ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN**  
Aukera ezazu Atsedén estreinaldi plana edo ...

**BASIC PLANA:** Koltxoia + burukoia: **jaso zure oparia**  
**MEDIUM PLANA:** Koltxoia + somierra + burukoia: **%5eko deskontua**  
**PLATINUM PLANA:** Koltxoia + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoia: **%10eko deskontua**  
**GOLD PLANA:** Viscolaxtic Koltxoia + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoia + edredoi nordikoa + funda nordikoa: **%15eko deskontua**

**12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina**  
[www.colchonesatseden.com](http://www.colchonesatseden.com)  
 Aprobetxatu promozioa

Eta hau guzti gure botiko prezioetan, lantegiko prezioetan

Iruña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Bilboko errep. • 948 346 000 • BILBO • Inulana, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

## BAZTAN

# Frankismoan halabeharrez lanean aritu ziren presoak omendu dituzte Artesiagan

Biharamunean, inauguratutako eskultura eta Iruritako eliz atarian pintadak agertu ziren

## ttipi-ttapa

Francoren diktadura garaian, Baztanen halabeharrez lanean aritu ziren presoak omendu zituzten maiatzaren 16an Iruritan, Udalak, Iruritako herriak, Geronimo de Uztariz Institutuak eta Memoriaren Bideak erakundeak antolatuta.


Bertzeak bertze, Iruritatik Artesiagara doan bidea egitera behartu zituzten preso errepublikarrak eskualdean, 1939 eta 1941 urteen artean, eta horiek izan zituzten gogoan omenaldian. Denera, 1.756 preso baino gehiago aritu ziren lan horretan.

Irurita-Artesiagakobidearen 13. kilometroan, Pitzamarren, eguerdian Mikel Iriarte arizkundarrak egindako *Bidegabe bidea* eskultura inauguratu zuten. Garai hartan Artesiagan lanea behartu zituzten eta oraindik bizi diren hiru gizaseme ere ekitaldian izan ziren: Lesakako Justo Urkijo, Iruritako Pedro

Aranguena *Bixkarieta* Ricard Mula, Oronozen fusilatutako errepublikar baten semea. Angel Galanen alabak ere ekitaldian izan ziren. Omenaldia berandu ailegatu bazaie ere, eskertzekoa dela aipatu zuten eta garai hartan sufritutakoen berri eman zuten.

## BIHARAMONEAN PINTADAK

Ekitaldi hunkigarria izan zen, baina biharamunean Artesiagako eskultura kaltetua eta pintadekin agertu zen. Falange Baztanek sinatuta, *Viva Cristo Rey, Irebazi giñun ta beti irebazi* eta gisako pintadak agertu ziren, baita zenbait baztandar mehatxatuz ere. Pitzamarren ez ezik, Iruritako eliz atarian ere pintadak agertu ziren, Espainiako Gerra Zibil garaian Francoren tropetan hil ziren baztandarrak gogoratuz. Arraiozen ere herritar bat mehatxatuz pintadak azaldu ziren.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO ETA MAITE OTEIZA

Goiko argazkia Artesiagan maiatzaren 16an Frankoren garaiko presoek omenez egindako ekitaldian ateratakoa da eta behekoa Iruritako eliz atarian, biharamunean egindako pintadekin.

calzados

Beti nahi izan dituzun oinetako markak, orain ELIZONDON

**Alai**

**ireki berria**

oinetakoak helduentzat eta haurrentzat

Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

Carlos Garaikoetxea Etxenike

abokatu

Tel.: 948 581 488  
Mug.: 630 354 818

Santiago, 58 3C  
ELIZONDO



## BAZTAN

# Berroetako bestak maiatzaren 29tik garagar-tzaroaren 1era

XXXVI. Asto Karrera eginen da

### Ortzileria 29

*Bezpera*

**20:00etan** txupinazoa bestei hasiera emateko. **Ondotik**, herriko trikitilariak herrian barna. **20:30ean** txopo goratzea. **21:00etan** mutil-dantzak. **21:30ean** Baztan-zopak, JOXEANJEL akordeoilariak alaituta. **00:00etan** TRIKITA KE-

rekin dantzaldia. **Segidan** KOMANDO CAS-TAÑAREkin kontzertua.

### Launbeta 30

*Haurren Egune*

**12:00etan** ginkana. **15:00etan** gaztelu puzgarriak. **19:00etan** Asto Karrera. **21:00etan** herri afaria. **00:00etan** dantzaldia SANTXOTENA akordeoilariarekin.



ARGAZKIAK: ARANTXA ZELAIA

Aurten ere adin guztietako jendeak izanen du ongi pasatzeko aukera.

### Igendia 31

*Mendekoste Egune*

**12:00etan** Meza Nagusia Elizondoko abesbatza eta Gaztelu taldearekin. **13:00etan** hamaitakak plazan. **13:30ean** binakako pilota partida herriko pilotarekin. **18:30ean** herri kirolak,

Baztango Basaburua, Ultzama eta Berriozarko taldeen artean. **19:30ean** XXXVI. Asto Karrera. **20:30ean** dantzaldia JOXE ANJELekin.

### Astelehena 1

*Zikiro Egune*

**11:00etan** XXXVII. Bizikleta Itzulia. **12:00etan**

mus txapelketa. **14:30ean** zikiro jatea JOXE ANJEL akordeoilariarekin. **18:00etan** sokatira: ezkonduak ezkongabeen kontra. **19:00etan** futbol-partida: ezkonduak ezkongabeen kontra. **21:00etan** xinger jatia. **22:00etan** GAIXOA NI bestak akitzeko.



## Lindutx Baztan S.L

### BAZTANen ELIZONDO

Pisuak eta apartamentuak salgai trasteleku eta garajearekin. Sartzeko prest!

Lokal komertzialen salmenta.

### BAZTANen ARIZKUN

Familia bakarreko etxebizitzak, partzela pribatuarekin, 500m<sup>2</sup> tik hasita. Bi eta hiru logelako etxebizitzak eraikiko dira, 126.000 €tik hasita

### ULTZAMAN IRAIZOTZ

Etxebizitza libreak, trasteleku eta garaje-plazarekin, beheko solairuak lorategi pribatuarekin.

Baztan Berri Plaza, 6 behea • ELIZONDO • T: 948 580 344 M; 676 509 312  
info@lindutx.com www.lindutx.com

ISO 9001  
BUREAU VERITAS  
Certification



## BAZTAN

# Batzar Nagusiaren aktak euskaraz eta gaztelaniaz egingen dira udatik aitzinera

Hala baieztatu dio Virginia Aleman alkateak Ttipi-Ttapari

## ttipi-ttapa

Orain arte gaztelania hutsez egin dira, baina uda honetatik aitzinera elebidunak izanen dira; Batzar Nagusiko aktak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Gaia apirilaren 1eko Batzar Nagusiaren bilkuran eztabaidatu zuten, eta Virginia Aleman alkateak ere hala baieztatu dio **Ttipi-Ttapari**. Gaineratu duenez, «kontent» dago erabaki horrekin. Idazkariak ez daki euskaraz, baina Alemanek adierazi digunez, «juridikoki formatua dagoen langilea badago Baztango administrazioan eta itzulpenak berak egingen ditu euskara teknikariaren laguntzarekin».

Dagoeneko lehenbiziko pausoak ematen hasi dira eta apirilaren 1eko aktan, erraterako, zenbait pasarte euskaraz idatziak ageri dira.

## EZTABAIDA BATZAR NAGUSIAN

Gaiak eztabaida sortu zuen apirilaren 1eko bilkuran. Peio Obregozo Iruritako alkateak batzarrean euskaraz egingadako adierazpenak aktan euskaraz jasotzeko eskatu zuten. Idaz-

kariak, ordea, euskaraz ez dakiela erantzun zion. Alkateak, bere aldetik, euskaraz zein gaztelaniaz bietara egiteko zein formula dagoen aztertzen ari zirela erantzun zion.

UPNeko Leopoldo Jaenek, berriz, zera aipatu zuen: «*itzultzailea izatea da metodorik egokiena, eta euskaraz hitz eginez gero, logikoena itzultzea da. Itzultzaile bat baldin bada bilkuran itzuli eta ados bagaude, onartu egingen dugu ala ez*». Horren harira, Xotero Etxandi Arraiozko alkateak «*arazo sakon bat*» dagoela aipatu zuen: «*batzuek ulertu behar dutena da Euskal Herrian gaudela, Baztanen, eta hemen itzulpenak ez dira gaztelaniara egin behar; edo hobeki erranda, itzulpena gaztelaniara egin behar da, egiten dena, eta ez euskara, ez erdaldundu euskara aktetan. Batzar Nagusian eta bertze erakundeetan, bertako arduradunek euskaldunak izan beharko lukete, euskarak era normalizatu batean funtzionatuko beharko luke Baztanen*».

## Iturzaeta denboraldiko jokalaririk onena

Lehen Maila Nazionalen ari den Baztango Kirol Taldeko jokalaria da Josune Iturzaeta eta denboraldi bikaina egin duelako, bere ka-

tegoriako jokalaririk onenaren saria eman dio Nafarroako Eskubaloi Federazioak.

## Elizondoko Abesbatza Erratzun

Elizondoko Abesbatzak kontzertua eskai-

niko du larunbat honetan, maiatzak 30, Erratzuko San Pedro Elizan, 19:30ean hasiko da. Abesbatza Isabel Lacar Abriek zuzenduko du eta hainbat kolaborazio izanen dituzte, tartean Sergio Martinez pianoan.



ARGAZKIAK: BAZTANDARREN BILTZARRA

## Baztandarren Biltzarreko kartel berria

Uztailaren 19an izanen den baztandarren besta haundiak badu dagoeneko irudia. Begoña Durruty margolari arizkundarraren *Porrusalda* kartela, hain zuzen. Ez da, halere, epamahiaren puntuaziorik altuena jaso duen lana izanen. Izan ere, hasieran bertze kartel bat hautatu zuen, baina «*lehenagotik editatutako bertze kartel batekin dituen antzekotasunak eta bertatik eratorri daitezkeen ondorio legalak direla-eta, Baztandarren Biltzarra Elkarteak kartel hori erretiratzea erabaki du*». Hala adierazi dute elkartetik. Horrez gain, antolakuntzak gai honen inguruan ez duela «*inola-ko adierazpenik*» egingen aipatu du. Durrutyrena epamahiak puntu gehiagorekin aukeratutako bigarren lana izan da, ezkerrean ageri dena. Eskuinekoa, berriz, hasieran aukeratutakoa da.

**suteia**  
INSTALAZIOA

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guztiak  
koordinatuz eta  
prekariaren arduraz  
hantuz, zure igogailu  
instalazien dizugu

**BAZTAN**

## Elizondoko Foru Plaza berritzeko proposamenak ikusgai daude Arizkunenean

16 urtetik goitiko baztandarrek proiektu baten aldeko botoa eman dezakete

**ttipi-ttapa**

Elizondoko Foruen Plaza berritzeko proposamenak Arizkunenean Kultur Etxean daude ikusgai maiatzaren 11z geroztik. Plazaren itxuraberritzea lehentasuna zelakoan, Udalak ideien lehiaketa egitea erabaki zuen. Deialdian 44 proiektu aurkeztu ziren eta iragarri bezala, Udalak erakusgai paratu ditu baztandarren iritzia biltzeko. Erakusketan maiatzaren 31 bitartean egonen da zabalik, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara.

**HERRITARREN BOTOA ERE KONTUAN HARTUKO DA**

Proiektua aukeratzekoan, Udalak herritarren iritzia kontuan hartuko du eta horretarako Baztanen erroldatuta dauden 16 urtez goitiko guztiek egitasmo baten aldeko botoa ematen ahal izanen dute. Hondarreko erabakia hartzerakoan, herritarren

balorazioak %20ko baliola izanen du. Bertze %80a epaimahi batek deliberratu du.

**Sokatira**

Maiatzaren 16an akitu zen Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketa eta zenbait txapel Baztenera etorri dira. Gizonzkoen 300 kilokoan, Amaiur A bigarren gelditu da; emakumezkoen 265 kilokoetan ere bigarren izan da Amaiur eta 250koetan txapel-dun; kadeteen mailan, 295 kilokoan mailan txapela Basaburuarentzat izan da.

**Kintoko usategien enkantea**

Kintoko Mendi Mankomunitateak enkante publikora atera ditu plugu itxiaren bidez Kintoko ehiza barrutian dauden usategiak errentan emateko. Hasierako prezioak jakin eta enkantean parte hartzeko, udaletxera jo behar da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Haur Eskola ofizialki inauguratua**

Martxoan ireki baldin bazen ere, maiatzaren 15ean egin zuten Elizondoko Merkatzelai karrikan dagoen Haur Eskola berriaren inaugurazio ofiziala. Ekitaldian Carlos Perez-Nievas Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak parte hartu zuen. Departamentu honek ordaindu ditu lanak, 649.985 euro guzira. 72 haurrendako lekua izanen du Haur Eskola berriak, sei geletan banatuak. Horietatik 16 bularreko haurrei zuzendutako bi geletan egonen dira; 1-2 urte arteko haurrendako 24 leku izanen dira, bi geletan, eta 2-3 urte artekoendako bertze 32 leku, bi geletan. Jangela zerbitzua ere eskainiko da. Eraikin barnean erabiltzeko 771,60 metro koadro daude, 77,80 metro koadroko aterpea eta 1.352,65 metro koadroko patioa. Orain arte haurtzaindegia eraikin zaharkitu batean zegoen, urtebete baino haur ttikiagoendako ez zen zerbitzurik eskaintzen eta 58 haurrendako lekua zuen. Cristina Goñi zuzendariaren erranetara, zazpi hezitzaile, bi garbitzaile eta jangelako hiru laguntzaile ari dira lanean. Udala izanen da Haur Eskolaren jabea eta oinarrizko ekipamendua erosteko, 107.751 euro hartuko ditu Gobernutik. 2008-2009 ikasturteko kudeaketa eta funtzionamendu gastuetarako, berriz, 119.916 euroko laguntza izanen du.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulo Iriarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

**ttipi**  
**ttapa**

www.ttipi.net  
info@ttipi.net

(0034) 948635458

**MENDI**  
ostalua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo · braulo iriarte 33, 1ºD · 31700  
948250371 iruñea · iribeko monastegia 62, 4ºC · 31011

**MENDIALDE**  
Jatetxea

948 453 060  
N-123-B-266 km  
AMAIUR

## ZUGARRAMURDI/URDAZUBI

# Ekainaren 20an egingen da Sorginaren Egunaren bigarren edizioa

Aurten hainbat berrikuntza izanen dira, bertzeak bertze, Erdi Aroko azoka

## Margari eta Koro

Gan den urtean arrakasta pulitarekin egin zen Zugarramurdi lehenezik aldiz Sorginaren Eguna, eta ia gainean dugu bigarren edizioa ere.

Ekainaren 20rako antolatua da, eta gan den urteotik aldaketa batzuk izanen ditu. Hasteko, gan den urtean leizeetan eman ziren postuak aurten herriko karriketan egonen direla. Bertzalde, sorginekin zerikusia duten postuez gain, Erdi Aroko feria bat ere izanen da. Eta azkenik, karrikako antzerki bat ere ikusteko aukera izanen da, sorgin, inkisidore eta guztiekin.

Horretaz gain, gan den urteko gisan, hitzaldiak, karrikako animazioak eta gaueko Akela-


rre antzerkia ere ikusgai izanen dira

Aitzinerago emanen ditugu xehetasunak.

## Pilotari profesionalak ekainaren 13an

Profesionaletan urteak egin dituzten bi pilotariak Zugarramurdi aukeratu dute euren agurra emateko: Karlos Armentariz (Orkoi, 1969) eta Karmelo Ariznabarretak (Galdakao, 1970). Frontis enpresako pilotariak dira biak eta ekainaren 13an, larunbata, Zugarramurdiko pilotalekuan omenaldia jasoko dute euren agurra dela-eta.

Egun berean, bi horien partidaz gain, Nafarroako lau'terdiko txapelketako partida bat ere jokatuko da.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

## Hasi dira onddoak

Aurtengo sasoiko lehenezikoko onddoak hasi dira eta horietako bat argazkian ageri den Urdazubiko Manoli Azkarragak bildutakoak izan dira. Maiatzaren 10ean bildu zituen onddo eder hauek, 616 eta 280 gramokoak dira.

**ARMUA JAIETENA**

T. 948 549 131  
Zugarramurdi - 48101 - URDAZUBI

**SOULE**

hileta artea

Tfnoa: 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

**VENTA PEIO**

udaberri  
udako  
modan  
sekulako  
eskaintzak

Donostia (Zugarramurdi)  
Tel: 948 549 131  
Fax: 948 549 131

Donostia  
Tel: 948 549 131  
Fax: 948 549 131

Leizola  
Tel: 948 549 131  
Fax: 948 549 131

**MONTXO OSTATUA**

Dantzarineatik  
2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДА  
АНЗАН-БОРДА - УРДАЗУБИ

Egutegia irekia 10:30etik 02:30era

**SARA**

## Bi herritar aurkeztuko dira Europako hauteskundeetan

Jean Aniotzbehere eta Mixel Gerendiain hautagaien artean

**Xan HARRIAGUE**

Jean Aniotzbehere lehengo auzapeza eta Mixel Gerendiain hautagaien artean dira heldu den igandean zortzi iraganen diren Europako bozetan. Biak zerrenda abertzaleetan aurkeztu dira. Jean Aniotzbehere EAJ-PNB alderdiaren zerrendan da eta Mixel Gerendiain Euskal Herriaren Alde izeneko herritarren zerrendan.

Jean Telletxea Urruñako kontseilaria izanen da Aniotzbehereren zerrendan buru. Herrialdeetan oinarritzen den Europa defendatuko dute, euskal euroherria sortzeko beharra nabarmenduz. Mixel Gerendiainen zerrendan, aldiz, Ixabel Etxeberrria izanen da buru. Hura ere kontseiluan da Urruñan. Europan Euskal

Herriaren ezagutza zabaldu nahi dute, eta herrien Europa eraiki lan-gileetan oinarrituz.

**Triala**

Igandean jokatu da gure herrian egiten den moto trial txapelketa. Xabalon iraganen da azken urte hauetan bezala. Txapelketa hetsia izaten da eta beraz, edozeinek ez du parte hartzen ahal, baina ikustera joan nahi izanez gero, zona guztiak Lizarrrietako lepoko bidearen ezkerreko aldean izanen dira.

**Urtxintxen besta**

Eskubaloi taldeak bere urteko besta antolatu du heldu den ekainaren 6rako. Eguerditik aitzinera txapelketa irekia jokatu da eta arratsan han berean afaltzeko aukera izanen da.



ARGAZKIAK: MAITE ARBURUA

**Sagardo Eguna**

Aurten ere Sagardo Eguna antolatu dute Olhain ikastolako burasok. 9:30etik aitzinera zernahi ekitaldi izanen dira plazan. Goizean, Lapurdiko hainbat talde lehiatuko dira Xiba jokoetan. Horiek dira lehengo euskal jokoak. Eguerdian kupelak irekiko dituzte. Aurten ere lau sagardo ezberdin ekarriko dituzte. Basoa hiru eurotan erosiz gero, nahi bezainbat edaten ahalko da. Ondotik, ikastolako haurrek ikasturtean landu dituzten kantutak eskainiko dituzte. Txotx egin, bertso batzuk eta haurren kantaldia entzun eta gero bazkaltzeko tenorea izanen da. Horretarako sagardotegietako menua eskainiko dute han berean, oihaletxearen azpian, 22 eurotan. Bazkalondoan bertsulariak berriz ere kantatuko dute. Aurten Martin Luku, Txomin Elozegi, Maiana Irigoien eta Ximun Casaubon ariko dira bertsotan. Azkenik arratsaldea pasatzeko Xiba jokoak antolatuko dituzte haurrentzat, eta 17:00ean Zepeiz Mukaki taldeak dantza erakustaldia eskainiko du.

**m bentamiguel**  
denda, jatetxea eta ostatua

Ongi zeindutako sukaldaritza  
Menuak aukeratu

Tabakoa  
Likorak  
Janaridenda  
Urdategia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

**POTTOKI**

Bastetxeri Plaza, 3 - beheak  
31100 ELIZONDOKO (Nafarroa)  
Telefono: 948 381 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com

Astrolanenetik  
larunbatara:  
8:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

HELDUEN  
ETXEN  
EDENTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542319  
Maitzen eta Yéromogak

SARA

**Iñaki Alzulet margoak**

Pinturak, barnetutako eta irekiak • Dintxoak, irratzak, besterak  
Fototxak • Semeak

Lanetan eta berrabiarazteko lanetan • Pinturak  
Niri eta lagunen arazoak ere gelan da

Tel. 609 802 417 • Bar-otza etxea - Lantzar Auzoa • 31711 URDAGUZI  
gintura.alzulet@yahoo.es

## SENPERE

# Jean Joseph Jorajuria eta Miren Azkarate eskertu dituzte Herri Urratsen

Euskaltzale eta hautetsien artean giro ona nagusi

Franck DOLOSOR

Senperen norik ez du ezagutzen Jean Joseph Jorajuria? Karrika nagusiko zurgin ohiak ehunka herritar lagundu ditu urteetan suhiltzaile izan baita denbora luzean. 1984az geroz, urte guziz aintziraren inguruan ospatzen den Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko bestari ere laguntza eman izan dio behin baino gehiagotan. Maiatzeko bigarren igandean, suhiltzaileak aintzirako sartze nagusian biltzen dira zer nahi gerta eta hantxe urteetan Jorajuria ikusi ahal izan dute euskaltzaleek. Laguntza hori eman izana eskertu nahi izan diote bestaren antolatzaileek. Hogoita seigarren Herri Urrats bestaren inaugurazioan, Pascal Indo Seaskako buruzagiak gogoratu zuen Senpereko suhiltzaileen buru izan dena beti «*baikor*» agertu dela lan egiteko «*kittorik*». Seaskakoez ez zuten ahantzi Jorajuriari esker loturak sortu direla Lapurdi eta Legazpiko suhiltzaileen artean. Isilean eta urteetan egin duen lana eskertzeko margo bat eskaini zioten, egun guziz etxe aintzinean alkiaren gainean jarrita erretretaz goxatzen den senpertarrari.

Bertalalde, azken urteetan euskal gobernamenduaren izenean Miren Azkaratek eman duen laguntza haundia ere eskertu nahi izan zuen Seaskak. Euskarazko mila liburu Iparraldeko liburutegietan banatzeaz gain, Azkaratek azkarki lagundu ditu ikastolak eta euskal elkarteak, eta lan sakona egin du Iparraldeko egitura publikoekin elkarlanean aritzeko euskara sustatzeko. Herri Urrats egunean, Azkaratek ez zuen kargu publikorik baina gomitatzea baitezpadakoa zela zioten Seaskakoez. Donostiarak «*ez adiorik*» erranaldiarekin bururatu zuen mintzaldia eta argiki erran zuen prest dela lanean segitzeko. Euskal Herriko Unibertsitatean eta Euskaltzaindian dituen bulegoen atea denei irekiak direla argi utzi zuen. Bere agurra momentu hunkigarria izan zen eta esku zarta zaparrada luze bate-



ARGAZKIAK: ZURINE MENDIZABAL

kin, eguneko luzeenarekin, bururatu zen. Orain ez da batere argi zer laguntza eman duen sozialista eta popularren esku gelditu den Eusko Jaurlaritzaren berriak.

## GIRO ONEAN

Urteetan, haserrea izan da nagusi euskaltzale eta hautetsien artean. Halere, giroa arrunt aldatu eta lasaitu da. Horren lekuko izan zen Herri Urratseko ekitaldi nagusia, sentsibilitate guzietako hautetsiek parte hartu baituzten: horien artean, José Bové sindikalista ezaguna, Europako bozen karietarat kanpainen ibilki zena. Aintziraren inguruan, besta, musika eta dantza nagusi zi-

Alde batetik, Pascal Indo Seaskako presidentea, Max Brisson Euskararen Erakunde Publikoko burua eta Frantxoa Maitia Akitaniako president ordea saria ematen Jean Joseph Jorajuriari. Bertze argazkian, Miren Azkarate lore sorta eskuan duela.

ren bitartean, Ur Hegia etxean Max Brisson EEPko buruak gogoratu zuen zuzentzen duen egiturak Seaska laguntzen segituko duela. Bere erranetan ikastolak beharrezkoak dira biharko euskal irakasleak, kazetariak eta zerbitzu publikoetako langileak prestatzeko. *Haizea alde baita*, hauxe izan da aurtengo bestaren leloa...



## Yamiled GIRALDO QUINTERO YAMI

Gure herria utzi duzu oso iluna, zu beti izan zinen guztion laguna. Iturengo herrian zure maitasuna, gure artean betiko gordeko duguna.

ITURENGO HERRITARRAK ETA ESKOLAKO IKASLE,  
IRAKASLE ETA GAINONTZEKO LANGILEAK



## Joxemi JORAJURIA TELLETXEA

Elgorriagan, 2008ko maiatzaren 27an  
I. URTEURRENA

Udaberriko egun batean joan zinen eta urte bat pasatu da gurekin ez zaudela

MAITE ZAITUGU

ZURE FAMILIA



## EZKONTZAK

**Xabier Legasa Rosa** eta **Edurne Elizagoien Ariztegi**, Lesakakoa eta Etxalarkoa, maiatzaren 9an Lesakan.  
**Ernesto Arraras Perurena** eta **Amaia Saralegi Mutuberria**, Leitzakoak, maiatzaren 1ean Leitzan.  
**Sebastian Orset Olesina** eta **Nuria Barral Martinez**, Igantzikoa eta Pasaiakoa maiatzaren 4an Igantzin.  
**Eneko Rekarte Oteiza** eta **Miren Agirre Etxebeste**, Donamariakoa eta Berakoak, maiatzaren 16an Donamarian.  
**Pantxo Orgogozo** eta **Sandrine Etxegarai**, maiatzaren 2an Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## SORTZEAK

**Leize Maritorea Erroz**, Anizkoa, maiatzaren 6an.  
**Iria Rekondo Antzizar**, Leitzakoa, maiatzaren 10ean.  
**Oier Lizartza Rodriguez**, Leitzakoa, maiatzaren 7an.  
**Gorka España Pujolle**, Etxalarkoa, maiatzaren 1ean.  
**Xabier Leiza Maeztu**, Arantzakoa, maiatzaren 4an.  
**Mateo Ezeizabarrena Puello**, Igantzikoa, maiatzaren 8an.  
**Joanes Juanotena Iribarren**, Doneztebekoa, maiatzaren 1ean.  
**Markel Elizalde Indakotxea**, Zubietaakoa, maiatzaren 5ean.  
**Unai Heredia Irigoien**, Sarakoa, maiatzaren 2an.  
**Elaia Ixuribehere**, Sarakoa, maiatzaren 2an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## HERIOTZAK

**Pedro Landa Gortari**, Lekarozkoa, maiatzaren 13an, 82 urte.  
**Maria Josefa Arrijuria Jaramillo**, Elizondokoa, maiatzaren 11n, 96 urte.  
**Miguel Garate Urrutia**, Elizondokoa, maiatzaren 9an, 58 urte.  
**Evaristo Goñi Istilart**, Elizondokoa, maiatzaren 8an, 88 urte.  
**Graciosa Etxeberria Irigoien**, Erratzukoa, maiatzaren 6an, 88 urte.  
**M<sup>a</sup> Juana Zubieta Telletxea**, Berakoa, maiatzaren 6an, 91 urte.  
**Juan Martin Sanchez**, Lesakakoa, maiatzaren 15an, 69 urte.  
**Jose Antonio Kareaga Fontecha**, Beran, maiatzaren 16an, 86 urte.  
**Genevieve Agirre**, Sarakoa, maiatzaren 8an.



### Jose M<sup>a</sup> BALEZTENA MONACO

Leitza, 2009ko apirilaren 29an

*Gure gau ilunak argituko dituen izarra.  
 Buruan bueltaka dabilen irriaren oihartzunaren islada  
 Zu gure bihotzean beti altxatuko dugun Jose M<sup>a</sup> maitea izanzen zara*

**EMAZTEA ETA SEME-ALABAK**



### Jose M<sup>a</sup> BALEZTENA MONACO

Leitza, 2009ko apirilaren 29an

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.*

**AMA, ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK**



### Jose M<sup>a</sup> BALEZTENA MONACO

Leitza, 2009ko apirilaren 29an

*Zoriontasunaren bila ibili zara mundu honetan.  
 Familiarekin Leitzan, gogoz eta nahiez Saldisen.  
 Ustekabeen, dena utzi dezu...  
 Orain, Jainko Aitak zorion hori emango dizu.  
 Eskerrak izan zaren bezalakoa izateagatik.*

**KATALINTXONEKO FAMILIA**



Adur ETXEZARRETA *Aresoko eskiatzailea*

ARGAZKIA: NAFARROAKO ESKI KLUBA

• Espainiako Eski Txapelketan, infantil mailan, hirugarren postua lortuz, denboraldi bikaina egin du aurten Adur Etxezarretak (Areso, 1996).

• Txiki-txikitatik datorriko eskiatzeko zaletasuna, gurasoekin batera asteburuetan elurretara joaten zenetik. Gaur egun, 13 urterekin, Nafarroako Eski Klubeko kidea da eta gustura dago taldean. Etorkizunera begira, eskiatzen jarraitu nahi du.

• Aurtengo eski sasoa bukatuta, Leitzako txirrindularien taldean dabil orain.

## «Eski alpinoan abiadura haundiagoa hartzen da eta hori gustatzen zait»

### ttipi-ttapa

Bost urte besterik ez zituela jantzi zituen Adur Etxezarreta aresoarrak lehen aldiz eskiak, eta geroztik, ez pentsa urte asko pasatu direnik, 13 urte baititu. Baina zortzi urte hauek ez ditu alferrik galdu eta gaztea izanagatik dagoeneko hasia da garai-penak lortzen. Denboraldi honetan, esaterako, lan bikaina egin du Espainiako Kopan eta infantil mailan hirugarren postua lortu zuen Sierra Nevada. Denboraldia bukatuta, egindako lanarekin «oso pozik» dagoela aitortu digu. «Txapelketa hiru fase-tan jokatzeko Candanchun eta Alto Campon jokatu ziren. Horietatik 60 onenak Sierra Nevada-ra saikatu ginen. Hemen hiru modalitatetan aritu ginen eta Slalomean laugarren gelditu nintzen, Gigantean hirugarren eta Super Gigantean lehena. Saikapen orokorrean hiru probak hartzen dira kontuan eta puntu guztiak batuta, hirugarren izan nintzen».

«Gurasoek erakutsi zidaten eskiatzen. Asteburuetan elurretara joaten ginen eta gustura ibiltzen nintzen»

Gurasoengandik hartu zuen Etxezarretak eskiatzeko duen afizioa: «eurek erakutsi zidaten. Asteburuetan elurretara joaten ginen eta gustura ibiltzen nintzen». Gustatu eta aurrera. Nafarroako Eski Klubeko kidea da duela hiru urtetik eta orduan hasi zen lehiaketetan parte hartzen. Taldearekin hasita «asko aurreratu» duela adierazi digu. Halere, oraindik «teknika hobetu» behar omen du.

Astez Areson eta eski garaian asteburuetan entrenatzeko Candanchun. Horrela moldatzen da Adur. «Candanchun taldearekin egunean bost orduko entrenamenduak egiten ditugu». Mendiko kirol honek aukera asko es-

kaintzen baditu ere, aresoarrak argi du zein den berea: «*eski alpinoa*». Horixe gustatzen zaio. «*Fondoko eskia ere probatu dut, baina askoz ere nahiago dut alpinoa. Azken honetan abiadura haundiagoa hartzen da eta hori gustatzen zait*».

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo maila egiten ari da Leitzako institutuan, eta «ongi» moldatzen den arren, gustura dabilen galdetuta, «*bueno*» erantzun digu irribarrez. Dena den, badu ikasten segitu eta unibertsitatera joateko asmoa. Hori bai, kirolarekin lotua izan dadila ikasi beharrekoa: Soin Hezkuntza egin nahi du, Gasteizen. Kirola du buruan, bai. Hala, eski denboraldia bukatuta eskiak utzi eta bizikleta hartu du. Uda honetan ere, Leitzako taldearen maillota jantziko du. Edonola ere, bere ametsa: «*eskiatzen jarraitzea*». Berezko dohaiak erakutsi ditu orain arte eta horrela segituz gero, aukera haundiak izan ditzake. Bai horixe.



## SOKATIRA

# Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketan parte hartzen ari da Areso

Larunbat honetan 640 kilokoen txapelketako lehen jardunaldia jokatu du Laukizen

## ttipi-ttapa

Aresoko lur gaineko sokatira taldeak hasi du denboraldia. Dagoeneko 680 kilokoen jardunaldi guztiak jokatu ditu joan den larunbatean egitekoa zen finala Endoian (Gipuzkoa)–, eta behin hori bukatuta, orain, 640, 600 eta 560 kiloko-

en txapelketak jokatu dira. Maila guztietan eman du izena Aresok, Getxo (Bizkaia), Gaztedi (Laukiz, Bizkaia), Goiherri A (Erandio, Bizkaia) eta Mutrikurekin (Gipuzkoa) batera. Zalan-tza bakarra Getxo eta Mutrikuren artean dago. Baliteke Getxok 600eko-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urteak daramatza Aresok lur gaineko sokatiran.

an ez parte-hartzea. 560koan ez dute ez batek ez bertzeak parte hartuko.

Larunbat honetan, hilak 30, 640 kilokoen txapelketako lehen saioa jokatu du Laukizen (Bizkaia) eta bigarrena ekainaren 13an jokatu da Martiartun (Bizkaia). Mai-

la honetako txapela ekainaren 21ean erabakiko da Maeztun (Araba).

Ekainaren 27an 600 kilokoen lehia hasiko da Billelan (Bizkaia). Bigarrena Mungian (Bizkaia) jokatu da uztailaren 4an eta finala uztailaren 19an Mutrikun (Gipuzkoa).

560 kilokoen txapelketa izanen da azkena eta hau San Cristobal (Erandio, Bizkaia) hasiko da uztailaren 11n. Bigarren jardunaldia uztailaren 25ean jokatu da eta finala 26an. Oraindik zehaztu gabe daude azken bisaiok non eginen diren.

## TXIRRINDULARITZA

# Errusiarrak nagusi Bidasoako Itzulian

Beran hasi eta bukatutako etapa hunkigarri izan zen

## ttipi-ttapa

23 urtez beheitiko txirrindulari afizionatuei zuzendutako Bidasoako Itzulian errusiarrak nagusi dira. Lokomotiv taldeko Dimitry Ignatiev irabazi du sailkapen orokorra eta Alexander Ryabkin taldekidea izan zen bigarren, maiatzaren 9an, Agiña eta Erlaitz pasatu ondotik Iruen akautu zen hondar etapan bigarren eta hirugarren izan ondotik. Etapa hori, sailkapen orokorrerako aukerarik ez zuen Caja Rural tal-

deko Ruben Garciak irabazi zuen.

Bezperan, Bera-Bera etapa hunkigarri izan zen. Afizionatuen mailako txirrindularitzan ere ikuskizunak izaten dira eta Berako helmugan halako zerbitu gertatu zen.

Etapa Andaluziako Eloy Ruizek irabazi zuen, biren arteko esprintean, Patrick Facchini andaluziarra menperatuz. Tropela 4 segundora sartu zen. Baina Altzateko Plazan paratua zegoen helmuga-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pieter Serry belgiarrak mendiko eta tarteko helmugako maillotak jantzi zituen, nahiz eta lepauztaia eta sorbalda-hezurra hautsi.

rako 200 metro falta zirela, Goya dendaren parean, erortze handia izan zen. Eroritakoetan zegoen Pieter Serry, etapan izandako ihesaldian ibilitako belgiarra eta horri esker, mendiko eta tarteko helmugako sailkapen buruan paratu zena. Helmugaratzeak sa-

ri horiek zituen beretzat, baina lepauztaia eta sorbalda-hezurra hautsi zituen. Halere, ez zuen etsi Serryk eta 200 metro horiek DYako medikuaren eta taldeko teknikari batek lagunduta oinez egin zituen eta helmugaratzea lortu zuen, Altzateko Plazan bildu-

tako zaleen txalo artean. Polita izan zen eta podiumean, bi maillotak jaso zituenean ere, beretzat izan ziren txalorik handienak.

Azken etapan ez zuen laisterketan atzeratzerik izan, baina erakustaldi ederra eman zuen belgiarrak!

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### ERAKUSKETAK

#### URDZUBI

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegiko Klaustroan.

### HITZALDIAK

#### AZKAINA

Maiatzaren 30ean, Deabruaren putak gaiari buruzko hitzaldia Armelle le Bras Choparderekin. Gaztetxean, 21:00etan.

### ANTZERKIAK

#### LESAKA

Maiatzaren 30ean, Azeri Taldearen eskutik, Txanobarragorri antzezlanaren komentuan, 20:30ean. Ekainaren 5ean, 22:00etan Kili Kolo taldeak Patetik Kabareta ikuskizuna eskainiko du 22:00etan Arrano elkartearen.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

Maiatzaren 30ean Des Kontrol eta Txapelpunk taldeen kontzertuak, 22:30etik aitzinera Lur dantzalekuan. Ekainaren 13an Trikidantz taldeak disko berria aurkeztuko du Lur dantzalekuan, 01:00etan.

### LEKAROZ

Maiatzaren 29an, institutuetako ikasleen topaketa. 17:00etan frontoian. Xehetasun gehiago 16. orrialdean.

### GOIZUETA

Ekainaren 7an Ozenki, Mendi eta Umore Ona abesbatzen kontzertua. 12:00etan Elizan. Xehetasun gehiago 27. orrialdean.

## GOMENDIOAK



## Trinitate Eguna ekainaren 7an Mendaurko kaxkoan

JENDE AUNITZ BILDUKO DA AURTEN ERE

Igande honetan zortzi, ekainaren 7an, jendetza bilduko da Mendaurko kaxkoan, Trinitate Eguna-ren harira. Tradizioak agintzen duen moduan, Mendekoste igandearen hurrengo eta Bestaberi egunaren aitzinekoan izaten da Trinitate Eguna eta horren aitzakian jende aunitz biltzen da Mendaurko kaxkoan. Inguruan dauden herrietako -Ituren, Zubieta, Elgorriaga, Doneztebe, Arantza...- jendeaz gain, Euskal Herriko hainbat eta hainbat txokotatik hurbiltzen da. Aurten ere hala izanen da: jendea meza entzutera, gosalzera edo lagun artean egotera bilduko da. Goizean meza iza-

nen da ermitan 10:00etan lehenbizikoa eta 11:00etan bigarrena. Horren ondotik, **Iturenen**, eguerdian enbaltseetara jaitsi eta bazkaria izanen da. Bazkalondoa alaitzeko musika doinuak izanen dira.

**Arantzan** ere modu berezian ospatzen dute Ternida Eguna. Aurten, berrikuntza gisa, Ekaitza Elkarteak ohiko ibilbidetik kanpo bertze bat proposatu du Mendaurre-ra joateko: 8:00etan plazatik abiatuta, Bagatxar eta Ekaitzan barna pasako dira Mendaurrera ailegatu aitzinetik. Bueltarakoan, jatekoa izanen da, eguraldi ona egiten badu, Senberroko bordan, eta bertzela, Ekaitza Elkartearen.

## DISKAK



20 Hatz proiekt

PLAZA eta GARMENDIA

BAGA-BIGA, 2009

Iñaki Plaza eta Ion Garmendia bikoteak ibilbide luzea darama Euskal Herriko musika-tresnenekin. Hainbat diskotan jo dute eta bertze hainbat talderekin aritu dira. Euskal soinu-tresnen kontzertu didaktikoak eta ikastaroak ere eskaini dituzte. Euren lehen lanari eta diskoari *20 Hatz proiekt* izena eman diote; izena, azken urtetan elkarren artean bildu dituzten musika esperientzien, lanen eta bidaien laburpena da. Abiapuntua Euskal Herriko folkloreakaren eritmoen aberastasunari eman dioten garrantzian datza. Horretarako erabiltzen dituzte pvc-ko tubioghra baxuarena egiten, trikitixa, alboka, txistua eta txalaparta prozesatuak, edota egurrezko txalaparta eta plastikozko bidoiak. Horren guztiaren emaitza biribila da: euskal tradizioaren worldmusic esperimentalak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (maiatzaren 8tik 15era bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 40,00 € (-3,00)

**Zerri gizena**  
1,127€ kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,460€ Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,10 (=)  
**1.koa** 3,80 (=)

**2.koa** 3,10 (=)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,20 (=)  
**1.koa** 3,90 (=)

**2.koa** 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,98/3,08  
Zaldi-behorrak: 1,67/1,87

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 5,20/6,00  
8-10 kilokoak: 4,20/4,60

## JAKIN BEHARREKOAK

# Elektrizitatearen fakturari adi begiratzeko gomendatu du Iratxek

Faktura hilabetero bidaltzen dutenetik kexak aunitz ugartu dira

Argindarra fakturatzeko sistema berriak buruko min haundiak eragin dizkie kontsumitzaileei. Lehen ez bezala, orain faktura hilabetero bidaltzen dute etxeetara –orain arte bi hilabetetik behin egiten zen– eta kobratzerakoan irakurketa erreala eta estimatua tartekatzen dituzte. Faktura deszifratzea zaila izateaz gain, tarifak ere igo egin ziren urte hasieran eta horrek kezka eta erreklamazio aunitz eragin zituen. Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartean, erraterako, urte hasieratik maiatzera, 750 kontsulta jaso zituzten, eta horietatik %17 gaizki fakturatu zirelako izan ziren.

### DENETARIKO KASUAK

Joan den urtean errentan emanak eta



**Bezero aunitzek kontsumitutatukoa baino gehiago kobratu nahi izan zaiela ikusi dute fakturretan.**

gaur egun hutsik dauden etxebizitzien kasuan, aitzineko urteko fakturaren arabera fakturak jaso dira aurten erabiltzaileek, Iratxeren hitzetan, «*existitzen ez direnak*».

Bertze zenbaiti, kontagailua irakurtzera joan ez, eta hiru hilabeteko kontsumoa pilatuta iritsi zaie. Kontagailua gaizki duten kasuak ere agertu dira eta kon-

tsumo baxuko orduak tarifa altuenekin kobratu zaizkie nak ere bai, eta alderantziz. «*500 eurotik goitiko fakturak ailegatu dira, 200 eurokoen ordez*».

laz gutti eta aurten aunitz kontsumitzen duten batzuei, zenbakiak trukatuak ailegatu zaizkiela adierazi dute kontsumitzaileen elkartean: «*estimazioaren araberako faktura hagitz*

*baxua eta faktura erreala hagitz altua*». Gisa berean, hilabete eta erdiz hiru faktura desberdin jaso dituztenak ere ba omen dira.

Etxe partikularretan behar dena baino potentzia haundiagoa kontratatua dutenak badirela eta horrekin ere adi ibiltzeko ohartarazi du Iratxek, «*lan-tegi batek behar duen indarra hartua dute, eta ez dute hainbertze behar*». Bezeroaren kontsumoa jaso duten fakturak ere izaten direla aipatu dute.

Kasu hauek guztiak kontuan hartuta, kontsumoaren edo fakturaren inguruan edozein zalantza duten bezeroei kontsumitzaileen elkartetara jotzeko gomendatu die Iratxek, zalantza argitu eta behar bada erreklamazioa aurkezteko.

## LIBURUAK



*New York, New York*

**Gotzon GARATE**

ELKAR, 2009

*New York, New York*: gure zibilizazioaren hiriburu globala, inperioaren gunea, ametsen hiria, munduan den herririk harriarrietakoa. Egileak erraten digun bezala, beste edonon aurkitzen diren alderdi on eta txarrak eriden litezke bertan, neurri handi, ikaragarri, miresgarritan. Munduko bertz hegaletatik heldu diren kulturak, askazi guztietako jendea, hamaika bizimodu bitxi elkartzen dira New Yorkeko karriketan; hilketak, droga, gangs-

terismoa, bortxakeria, baita jende bihotz-zabal eta jatorra ere. Gotzon Garate idazlea joan den urtean hil zen baina berak idatzitakoa da liburu hau, maiatzaren 14an aurkeztu zutena. Lehenago ere hainbat lan egindakoa da euskaraz: saiakerak (marxismoa eta euskal hizkuntza eta literaturari buruz); atsotitzak bilduma haundia; eta horiez gain dozenatik gora kronika, ipuin-bilduma eta eleberri, polizi nobelak batik bat.

## AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### BAZTAN

**Maiatzaren 31n**, Baztango Mendi Martxa. Ibilaldia 7:00etatik 7:30era abiatuko da.

### OSPAKIZUNAK

#### LEITZA

**Maiatzaren 31 arte** Aste Kulturala.

#### DONEZTEBE

**Maiatzaren 29an eta 30ean** Erreka elkartearen Eguna.

### BERTSOAK

#### DONEZTEBE

**Maiatzaren 30ean**, Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa finala, 19:00etan Zineman. Xehetasunak 20. orrialdean.

### BESTAK

#### BERROETA

**Maiatzaren 29tik garagartzaroaren 1era** Mendekoste bestak. Xehetasun gehiago 33. orrialdean.

#### SENPERE

**Maiatzaren 30ean** Senpereko aintzirako bestak.

### OSPAKIZUNAK

#### ZUGARRAMURDI

**Ekainaren 20an** Sorginen Egunaren 2. edizioa. Xehetasunak 36. orrialdean.

#### ITUREN

**Ekainaren 7an** Trinitate Eguna.

#### LEGASA

**Ekainaren 6an** Bertizaranako Eguna. Ekitaldiak egun osoan. Xehetasun gehiago 24. orrialdean.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebista eta [www.ttipi.net/en](http://www.ttipi.net/en) ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

### LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

### MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

### ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

### DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

801. Agurrak

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.**  
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.**  
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**  
- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**ITUREN.** Etxe adosatua salgai edo errentan emateko. 2000. urtekoa. Moleztatua eta polita. ☎679 210910.

**BERA.** Eztegara pasealekuan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. Kanpora begira eta berogailuarekin. Prezioa: 181.000 euro. ☎600 501881.

**ETXALAR.** Borda bere lurraekin salgai. ☎661 121540.

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

**ELIZONDO.** Erlategi Plazan pisua errentan emateko. ☎650 283322.

### ETXEBIZITZAK

#### 105 Konpartitzeko

**BERA.** Etxea konpartitzeko lagun bat behar da. ☎688 601343.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 107 Saldu

**LESACA.** Antoiu 23, be-

**ADOS**  
INMOBILIARIA

**DONEZTEBE:** Apartamentu berriak, 2 logelakoak  
21.500.000 pta TIK + BEZa

**DONEZTEBE:** Etxe berri bat:  
2 pisu, lokala eta lur eremuarekin pixka batekin.

**ELIZONDO:** 4 logelako pisua;  
prezio merke-merke

**BERA:** Lurra pisuak egiteko

607 978 656

heko solairuan, 48 m<sup>2</sup>ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**BERA.** Itxitako garajea errentan emateko. Burga karrikan, Telefonikaren ondoan. ☎617 902118.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 112 Salgai

**SARA.** Ura, argia eta isurbidea dituen 800 eta 1.000 m<sup>2</sup> arteko lur eraikigarria salgai. ☎0033 559542540.

**SARA.** 800 eta 2.000 artekko lur eriakigarriak salgai. Lehenbizikari auzoan. ☎948 631133.

**DONEZTEBE.** 4.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. ☎607 978656.

### ZERBITZUAK

#### 208 Bertzelakoak

**Fistula arazoak?** Kirurgiarikgabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618628311.

**IRUÑA-BURLATA.** Ikasle gazteentzat: zure bokazioaren eta gaitasunen arbera, zuretzat lanbide egokiena zein den jakin nahi baduzu, numerologiaren zientzia zure eskura duzu. Zientzai honek zenbakien bidez -jaiotze-datan eta izen-abizenetan oinarri-

tuz-, gizabanakoaren izaera, nortasuna eta intzidentzia guztiak ezaguturazten ditu. Azterketa bat egitea nahi duenak deitu. Prezioa: 20 euro. ☎647 156370.

**BORDA**  
PLADUR LANAK

2004ko azaroko 7.000 kilometro. ☎629 694443.

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**SARA**n sukaldaria eta zerbitzaria behar dira lanean aritzeko. Sukaldaria emakume euskalduna eta esperientziaduna bada hobea. ☎686 561525/0033 559542131.

**BERTIZ.** Turismo Bulegoan lan egiteko pertsona bat behar da. Eskatzen da: zonaldekoa izatea eta euskera eta frantsesa jakitea. Segidan lanean hasteko da. Urte bukaera arteko kontratua. Interesatuak: [ostaitz@yahoo.es](mailto:ostaitz@yahoo.es).

**ELIZONDO**n goiz eta arratsalde zaintzeko emakume bat behar dugu. ☎666 241647.

**LESACA.** 2009/2010 ikasturterako Haur Hezkuntzako irakaslea behar da Tantarumairu ikastolan. Curriculuma ekainaren 12a baino lehen bidali Lesakako Arretxea 9 edo [tantirumairu@lesaka.ikastola.net](mailto:tantirumairu@lesaka.ikastola.net)

### MOTORRAK

#### 501 Salgai

**Volkswagen Transporter** furgoneta salgai. 105 zaldikoa eta 115.000 kilometro. 2004ko urrikoa. 9 plaza. Prezioa: 15.000 euro.

☎948 452372.



**Volkswagen Scirocco 2.0**  
TDI 140 autoa salgai, xurria. Premium paketa. 2008ko azaroko 7.000 kilometro. ☎629 694443.

### MOTORRAK

#### 502 Tailerrak

### MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

### ANIMALIAK

#### 601 Emateko

**Arratoi zakurkumea** oparitzeko. ☎606 883399.

### ANIMALIAK

#### 602 Salerosketak

2 ahari salgai, latxak eta mutur gorriak. ☎948 504498.

**Astoak** salgai. 2, 3 eta 4 urtekoak. Beltzak eta onak. ☎948 630004.

**Txakurkumea** nahi dut, taina ttipikoa eta ile motzekoa. ☎943 618255/657776922.

Gaztain koloreko **zaldi** ederra eta mendian ongi egoten dena salgai. ☎609 411298/690 830292.



**Ehizarako zakurrak** sal-

gai, helduak eta tikiak.  
☎625 235869.

### **DENETARIK** **701 Galdu/aurkituak**

**BERA.** Toki Ona Institutua-  
ren inguruan 5 giltza aurkitu

dira. ☎948625000 (deitu goi-  
zez).

**BERA.** Legia karrikan  
Samsung markako sake-  
leko baten bateria agertu  
da. ☎948 630629 (deitu  
gauez).

### **DENETARIK**

#### **702 Salerosketak**

Agrator markako **rotaba-  
dorea** salgai, 1.500 euro-  
tan. bi lerroko artoa erei-  
tekoa salgai. ☎948  
450060.

**Belar bola idorrak** salgai,  
iazkoak eta aurtengoak.  
☎690 776147.

**Ostatu bateko tresneria**  
salgai. Ostatua eta sukal-  
dea erabat osatuak dau-  
de, eta altzari eta tresna

guztiak salgai. Egoera one-  
an. ☎630 929934/ 943  
622564.

Kuhn markako **belarra  
mozteko diskoa** salgai,  
lau platokoa. ☎630  
184847.

# TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

## zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**  
Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Zure laguntza eskertzeko,  
motxila eder hau  
izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN  
proiektua aukeratu izanaren  
frogagiria Nafarroako  
Kutxaren zure bulegoan  
eta ekar ezazu  
TTIPI-TTAPARA 2009ko  
abenduaren 30a  
baino lehen.

x+ geure bezeroek x+  
aukeratutako **can**  
x+ proiektua

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



Oronozko **MAIALEN** eta **AITOR BARRIBAR GORTARIK** urteak beteko dituzte maiatzaren 27an eta ekainaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik, eta bereziki Olaia, Eider eta Lorearen partetik.



Oronozko **MAIALEN BARRIBAR GORTARIK** 5 urte bete ditu maiatzaren 27an. Zorionak eta mila muxu gure sorgintxoari ama, atta eta zure anaia bihurriaren partetik.



Oronozko **AITOR BARRIBAR GORTARIK** 2 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak eta muxu haundi bat ama, atta eta bereziki Maialenen partetik.



Beste urte bat gehiago! Beintza-Labaiengo **KONSUELO** eta **KARMEN**ek maiatzaren 16an eta 19an urteak bete dituzte. Zorionak familia-  
ren partetik eta txokolate goxo-  
zain geldituko gara, bale?




Zubietako **JONE INDAKOTXEAK** 4 urte beteko ditu ekainaren 8an. Zorionak gure etxeko printzesari aita, ama eta Landerren partetik, eta egun ona pasa lagun guztiakin.



Irungo **UNAI ZUBIALDEK** eta Zubietako **JONE INDAKOTXEAK** launa urte beteko dituzte maiatzaren 29an eta ekainaren 8an. Nola ari zareten handitzen!!! Zorionak eta mila muxu potolo biezat, Xune, Mirari, Aimar eta Landerren partetik.




**JANIRE** eta amatxi **TRINIK** urteak bete dituzte maiatzaren 20an. Zorionak eta egun ona pasa zuen familia guztiaren partetik. Muxu haundi bana.



**JANIRE OTXANDORENA MITXELENA** lesakarrak 3 urte bete ditu maiatzaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat amato, aitaxo eta anaia Aimirren partetik.



**UNAX ORDOKI ETXEPETELEKU** lesakarrak 4 urte beteko ditu ekainaren 1ean. Zorionak familia guztiaren partetik. Aunitz urtez!



Irungo **UNAX PERURENA VALEROK** 2 urte bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta bi muxu aita, ama, Naroa eta nola ez, Iturengo amatxi eta izeba-osaben partetik.



Elizondoko **IRAITZ MENDIBURU TELLETXEAK** 2 urte bete ditu maiatzaren 26an. Zorionak potolonxio familia guztiaren eta bereziki Olaia-  
ren partetik.




Aurtizko **OHAN GOIZUETA BALEZTE**NAK maiatzaren 22an urtea beteko du. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki anaia Xabierren partetik. Muxu haundi bat.



**AIMAR** eta **AINITZE MARTINEZ OLAZABAL** lesakarrak ekainaren 16an urtea beteko dute. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko *heavyei* familiaren partetik eta bereziki izeba Izaskunen partetik.



Maiatzaren 27an **IZARO ALDABE TELLETXEAK** 7 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Ugaizen partetik. Muxuak.



**XUBAN ELIZONDO GOIA** gure mutikoak maiatzaren 22an 5 urte bete ditu. Ongi pasa zure eguna eta zorionak etxeko-  
koen partetik.




**PERU, OLARIXU** eta **GOIURI URRRA YECORA** lesakarrak ekainaren 22an urtea beteko dute. Zorionak aitaxo eta amatxoren partetik.



Sunbillako **PAUL IRAZOKI**ak maiatzaren 19an urteak bete ditu. Zorionak aunitz zure semetxo bihurri Pabloren eta andrearen partetik. Muxuak.




**OLAIAK** 7 urte beteko ditu. Etxalarko amazonari atta, ama eta Mike-  
len partetik muxu haundi bat. Zorionak preziosa!



Etxalarko **OLAIA ITURRIAK** ekainaren 9an urteak beteko ditu. Zorionak moñona, haize aunitz hartu beharko duzu aurtin 7 kandela-  
lak itzaltzeko.



**UNAI ALTZUGARRAI ARANBILLET** beratarrak 5 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak Almandozko familiaren partetik.




Elizondoko **AMAIA BALLARENA TELLETXEAK** maiatzaren 31n 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Ainhoa-  
ren partetik.



Auzako **ZELAI SARRATEA ALDAREK** urtea beteko du ekainaren 2an. Muxu haundi bat gure printzesari aita, ama, aitaxi, amatxi eta osaba Angel M<sup>re</sup>n partetik. Zorionak!

**UNAI APEZETXEA IRIBARREN** do-  
neztebarrak urteak bete ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Berako **UXUE** eta **AIMAR LEKUONA** lehengusuek ekainaren 7an eta 10ean urtea eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu pila.

**ZORIONDU**  
internet bidez  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
erraza da

deskontuak

DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK



OSTARGI Optika • BERA

%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

AGARA

AGARA kirolak • BERA

%5eko deskontua kirol artikuluetan

IPINGI

IPINGI Arropa-denda • ELIZONDO

%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



FOTO MENA

MENA Argazki-denda • ELIZONDO

%10eko deskontua kopia digitaletan

DATUCELAY

DATUCELAY tailerrak • ELIZONDO

%10eko deskontua batera eta amortiguadortan



EDURNE Arropa-denda • BERA

%5eko deskontua, 30€tik gora eskura ondandua

SARIDUNAK:

- 1 Harpidetza (Argia):  
Mari Tere Urkijo (Lesaka)
- 2 Martiko produktuak:  
Nekane Unsuion (Legasa)
- 3 Txapela buruan jantzia:  
Aintzane Arretxea (Sunbilla)  
Jexux Bailon (Elizondo)
- 4 Pirritx, Porrotx eta  
Mari motots lotea:  
Jaione Otxandorena (Sunbilla)
- 5 Onddo kamiseta:  
Amaia Arretxea (Sunbilla)  
Angel Garcia (Elizondo)
- 6 Nafarroa Oinez kamiseta:  
Arkaitz Mindegia (Aurtitz)  
Joxe Apeztegia (Ituren)

SMSa

2 sarrera (Aquarium):  
Ane Egizabal

2 sarrera (Artic izotz jauregia):  
Joanes Altzu

Animatu  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

bitartez ere parte har dezakezu.

ESKATU ZURE TXARTELA

948 63 54 58



ttipi txartelarekin  
beti irabazten da!

14 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu  
ostelehenetik ostiralera  
09:00-16:00

Tel: 948 63 54 58

**1 BI LIBURU**

Hiruak eta Eurretako emagira  
Leonardoren hegok

Lote 1

**1**

**baizabal**

www.baizabal.com

**1 BI LIBURU**

Pelo Telerraren amets eroak  
Amilans

Lote 1

**ekar**  
fundazioa

www.ekar.com

**3 JANTZIAK**

Sorrekak, kamisetak,  
perretak... zuk aukeratu

2 Lote

**txapela buruan**

www.txapela-buruan.com

**4 ZIRRI BORRO CD ROM**

Lote 1

**4**

**Ikastola Elkartea**

www.ikastola.net

**5 BI KAMISETA**

Lote 1

**oninart**

www.oninart.com

**6 CD**

El color de la duda titulado  
"A mi manera"

Lote 1

**termino music**

www.terminomusic.com

ttipi saskia **TTIPI SASKIA**ren ZOKKETAN  
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE  
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra

**CAMELOT PARK**  
**2 SARRERA**  
TXINGUDI ALCAMPO • IRUN  
943 626 216

**Mendukilo**  
Lote berririkoa • Concha berririkoa

**5 sarrera bikoitz eta liburu bat**

**ASTIZ (Nafarroa)**  
948 396 095

Zozketaren parte hartzekeo epaia: martitzaren 20tik ekarraren 3ra, irabazterik gabeko ekarrenean 11ku artekoak; argitaratuko dira. Martitzaren 30etik 1.00€ 100.000. Zure zozketak TTIPI-SASKIAren irabazterik gabeko deia jurrerantzosen bitartez zure eskatutako beti erosteko. Zozketara edo deustetapeneren bitartez deitu 948 63 54 58ra.

# Lurr

**LAISTER  
ARTI!!**

maiatzak **30** larunbata

**DES-KONTROL (EH)**

**TURTLE  
ISLAND**



**(JAPAN)**

**TRAPELPUNK (EH)**

**22:30 10€ Aurretik 12€ Takillan**

ekainak **6** larunbata

**JOSEIN  
ZUZENEAN**

**01:00 9€**

ekainak **13** larunbata

**2:00ak baino  
lehen etortzen  
bazara, kamiseta  
bat debalde.**

**DISKO BERRIAREN  
AURKEZPENA  
+ SORPRESAK**

**trikiDANTZ**

**01:00 9€**

**BISITA EZAZU  
GURE WEB ORRIA**

**LURELIZONDO.COM**